




TXAPELKETEN NEKEA

LEIRE AGIRRE ESKALATZAILEA EZ DA LEHIAKETETAN ARIKO AURTEN



DANBORRADA ▶ 50 urteko ibilbidea beste hainbat datutan

1957-



50 urte danborrak astintzen

DANBORRADAREN 50. URTEURREN JAIALDIA

urtarrilak

20:00 Izarraitz Pilotalekua

- Liburuaren aurkezpena
- Gipuzkoan danborrada ospatzen duten herri guztiek parte hartuko dute jaialdian (Aizernazabal, Anoeta, Arrasate, Beasain, Hernani, Ibarra, Legazpi, Lezo, Donostia...)



SAN SEBASTIAN BEZPERA

22:15 Helduen danborrada
24:00 Bandera igoera
00:30 Txaranga taldeak



SAN SEBASTIAN EGUNA

urtarrilak

09:30 Txistularien eta Musika Bandaren goiz-eresia
10:15 Agintariak korporazioan Eliza Nagusira joango dira
10:30 Prozesioa
10:45 Sebastian Donearen Elizan Meza Nagusia
12:00 Sokamuturra
12:30 Haurren danborrada. Karroza
16:00 Haur parkea Olazko Amaren Plazan
16:30 Sokamuturra / Txaranga
18:30 Nahidekena Txaranga eta hainbat elkarteetako danborroleak
20:00 Musika eta dantza emanaldia Enparantza Nagusian
22:00 Pilota partidak. Izarraitz pilotalekuan
24:00 Bandera jaistea. Elkarte guztiek hartuko dute parte



-2007



ONDO PASATU FESTAK!

Ez naiz neutrala



Inor ez da neutrala. Guztiok dugu aldeko ala kontrako joera bat. Ezjakintasunean oinarritutako neutraltasunak ez digu balio. Ezjakintasunak ez du arazorik konpontzen, ez digu aurrrera egiten laguntzen. Eta zenbat eta gehiago jakin, orduan eta neutraltasun gutxiago izango dugu. Alde batera ala bestera joko dugu beti.

Apolitikoak direla esaten dutenak baino amorru handiago ematen didatenak gutxi izango dira. Horiek dira politiko okerrenak. Ezer aldatu nahi ez dutenak, beti boterean da-

goenaren alde egiten dutenak, edozein dela ere boterean dagoena. Beti boterearen mesedetan. Ez da izango politika nazkagarriagorik.

Bilbon bizi izan naiz urte luzetan. Lagun batek Bilbo munduko metropolirik txikiena dela dio. Zuzen dagoelakoan nago. Neurriak berdin dio. Metropolia izatea da balio diguna. Eta txikia ala handia, Bilbo metropolia da. Kultura ezberdinak elkartzen dira bertan, sorteri ezberdineko jende ugari, nahasian eta nahastu gabe, hori guztia ere aukeran.

Azpeitia txikia da, txikiegia. "Donostia txikia" omen. Urruti dago kapital izate hori. Usteak erdi ustel. Eta neurriari baino gehiago, hementxo giroari, bizitzeko erari buruz ari natzazue.

Nire hitzak luzatzean, bizi izandakotik begiratu beharra daukat. Eta Bilbotik begiratu diot txikiegia den sasi-kapital usteko Azpeitia honi. Ez naiz neutrala. Nire talaiatik nire begirada objetiboa izan dadin saiatuko naiz, baina hori beste kupel bateko ardoa da. Pentsaraztea lortuko banu...

uztarria ▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.
943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 80.a (2007ko urtarria)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. EREGI

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Lizarra Grafikak

Azaleko argazkia. Iñaki Uranga

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



[u-iritzia]

08 Inkesta. Herritarren artean festarik gustukoenak zein diren jakin nahian ibili da Uztarrria kalean.

11 Bat hirutara. Hiru gazteek herrirako Olentzero egoki batek bete beharrekoak zehaztuko dituzte.

[u-mamia]

12 Ekonomia. Zubiola eta Sammic lantokiak Azkoitira doaz. Zergatik? Lur industrial falta ote da horren arrazoia?

14 Klik. Diego Cruz eskulturgilearen lanen sekretuak.

17 Sansebastianak. 50 urteko historia, 50 datu eta istoriotan kontatuta.



[u-jakiteko]

28 Antxieta. Antxieta Etxean adimen urritasuna duten pertsonak jarriko dira bizitzeko urtarriaren erdi aldera.

[u-euskara]

40 Irakaskuntza. Jexux Arrizabalaga euskara irakaslea eta Martin Alegria irakasle ohia, militantzia eta irakaskuntza lotu dituzten azpeitarrak.



UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Espazioa

Jorge Oteiza maisuak oparitu zigun *Quosque Tandem*-ak utzitako itzalak lagundurik, espazioaren bila nabil. Nire tokiaren bila. Bizi-espazioaz edo sinismen-espazioaz Uztarrian nire zalantzak eta itxaropenak azaltzeko inongo gogorik ez dudanez, politika-espazioaz aritu nahi nuke, zuen baimenarekin edo gabe. Bale, gabe.

Nazioarteko politikaren mugatan nire burua katu nahi badut, iruditzen zait trapuzko pilota motelarekin lzarraitz pilotalekuan ari naizela. Ramalan sartu omen dira israeldarrak, eta familia bereko lau haur eta gurasoak tiroka hil omen dituzte. Hiru milatik gora omen dira azken urtean hil dituzten zibilak herrialde horretan. Nazioarteko erakunde ponpoxoak zer? AEBetako judutarren *lobby*-ak duen kontrol ekonomikoak bultzatzen omen du Bushen gobernuaren betoa eta, beraz, gainontzeko herrialdeak eskuak lotuta omen dituzte. Omen gehiegi gauza onerako. Jo sakea eta pilota frontisean gelditzen zait lehen koadroa gainditu ezinik. Espazioak jan egiten nau, Silvioren sugeak bezala.

Herri honetan dugun afera nagusiari buruz pentsatzen jartzen banaiz, neure burua Betharramdarren pilotalekuan dakusat. Garai batean bezala, pilota Patxi Azkargortaren dendatik hartu dut. Zaharra da, ez Patxi, pilota baizik, eta bigarren koadrotik atzera ezin dut jarri. Bake prozesua. Denok gauza bera nahi eta elkar ulertu ezin. Pipa berriak bakearen pipa erretzeko? Eta goseak hil beharra askatasun gosea asetzeko? Hain zaila al da dagokionari galdetzea zer nahi duen? Dagokionari, itxuraz hor datza gakoak. Kalera ateratzen naizenean jendeari aurpegira begiratu eta iruditzen zait asko direla nire antzekoak. Edo ispiluz betetako gizartea bihurtzen ari da gurea, edo, pilotaleku hau, benetan handiegia da indarrez kaxkal dabilen herriarentzat. Espazioak ito egiten nau.

Azpeitiari buruz pentsatzen jartzen naizenetan, joko tokia atseginagoa zait. Zabalera irits naiteke

eta pilota errebotean jar dezaket gogotsu astinduz gero. Txokoko jokaldietan, heldu edo ez, gertu nabil, eta ezker horma, kolpeen ondorioz, zartatuta dagoen arren, zabalean eskuin horma arrotzik ez dugu jokaldiak are eta gehiago nahasteko. Eskuin horma agian badago, baina ez dugu ikusi nahi. *Enfin*, jokatzeko modukoa dela esan dezagun.

▶ **HURRENGOA.** Hurrengo neurketa maiatzetik aurrera antolatu digute. Puntuan aritzeko ez dago mugarik; hori bai, arauak errespetatu behar dira. Frontoi Txikira hurbiltzen den edonork izan dezala sakea egiteko edo errestoan aritzeko eskubidea, dejada botatzeko edo errebotetik, ahal badu, eramateko. Ez du balio gomazko pilotarekin jokatu dela esateak, ez jostura aspaldi galdu zuenarekin. Ez du balio beti buelta eskatzea hala komeni bada, edo toreroarena egitea piederik izan dadin. Tanta galtzen duenak kantxa utzi beharko du burua tente duela eta, partida bukatutakoan, sokatiran egiten den legez, gainontzekoei bostekoa eman beharko die. Hortik aparte dena libre. (Igonetxo, hau ez dut oso garbi) Balio du aurpegia estali gabe eramatea edo makilatuta azaltzea. Balio du arroparik gabe aritzea edo lagunari eskutik helduta jokatzela. Ez duena balio da zalantzaren bat baldin bada joko arauetara dagokienean, kanpora deitzea zer egin erabakitzeko. Epailerik gabe, bertaratzen direnek soilik hartuko dituzte erabakiak. Han erabakitakoa onartu beharko dute denek, gustukoa izan edo ez. Irabazleen izenak *Hitza*-n azaldu beharrik ez. Galtzailerik gabe. Horrela gure espazioa sortuko dugu. Espazio txiki propioa, geurea.

Artikuluaren etxetara iristean pilotalekuak indartsu eusten badio hego haize harroari eta iparraldeko ekaitzak bare badirau, zita jarrita dago. Pilotalekua badugu, gogoia sobran. Jo.

Orioko maisuak formak baino gehiago hutsuneak maite zituen. Erraz ikusten denaren atzean beste errealitate bat dago. Garela ziur izateko espazioan kokatu beharra. Ea noiz konturatzen garen Ramala edo Bagdad, Lizarra edo Garazi, ez direla mugatzen gaituztenak, hutsunea zabaltzen dituzten espazioa baizik.

HILEKO ESALDIA ▶

Lehen pilotakada jo aurretik, denok berdinak

AZPEITIKO

6 harategi hauetan bakarrik



EUSKAL OKELA



Beloki
Kale Nagusia 75 Tel. 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artetxe, 21 Tel. 943 513192
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEOA 15 00 03
AZPEITIA



**Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA 4

TFNOA 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEKO HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA.: 943 811671



Jon Larrañaga

Voyeur?

Oraingoan ere erregeek kale egin didate. Gauza bakarra eskatu diet eta aurreten ere garbi-garbi utzitako zapata hutsik agertu zait (beno hutsik ez, ezin ahaztu urteroko galtzontzilo eta galtzetin festa). Egia esan behar badut, eskatu dudana ere zail samarra zen ekartzeko, baina badakizue zer dioten, saiatzen denak bakarrik lortzen omen ditu gauzak...

Esango duzue, "baina hau zertaz ari da, zer eskatu du ba honek?". Hipoteka ginetik kentzea? Lanik egin gabehilero soldata jasotzea? Munduko gosearekin bukatzea? Euskaldunontzat hain desiratu baina era berean esanahi eta helburu ezberdina duen bakea lortzea? ... Ez, hori dena baino sinpleagoa eta era berean zailagoa da aurtengo nire eskaera. Nire ilusioa, betidanik ikusezina bihurtzea izan da...

Ikusezin bihurtu eta jendearen nondik norakoak jakiteko aukera izan, euren bizimodua, penak, pozak ezagutu... Bai, 'kuxkuxero' deituko didazue, baina hori baino gehiago da.

▶ **INGURURA BEGIRA.** Inoiz probatu al duzue kafetegi bateko terrazan eseri eta pasatzen den jendeari begira jartzea? Lehenik begira, ondoren zuen buruari galdezka eta azkenerako ikaragarriko pelikula sortzen duzu.

Jendearen istorioak asmatzea gustuko dut. Nondik datorren, nora doan, zer gertatu zaion, zer lan egiten duen... Inoiz egin ez baduzue, egunen batean probatu.

Era berean, gainera, norbere burua ezagutzen laguntzen du. Besteei asmatu eta jarri dizkiegun istorioen arabera, gure burutazioak eta aurreiritziak agerian uzten ditugu.

▶ **BI ADIBIDE.** Horren bi adibide aste honetan bertan gertatu zaizkit. Batek askatasun eta ideia aniztasunarekin du zerikusia, eta Donostiako Bulebarrean lagun baten zain nengoela gertatu zitzaidan.

Haur bat ikusi nuen kalean negarrez ama eta ai-

tarekin. Aitarekin? Umeak kasu gutxi egiten ziola ikusi nuen eta 'aita' kargua kendu eta amaren senargaia izango zela pentsatu nuen (gaur egun guraso bakarreko familiak, banandutakoak, bi aita edo ama dituztenak... ikaragarriko aukera ematen dute).

Ondoren, ordea, beste emakume bat agertu zen eta umea eta beste emakumea besarkatu zituen, baina gizona ukitu ere ez. Bale, harrapatu dut! Bi emakumeak bikote dira, haurra eurena da eta gizona senideren bat besterik ez da. Halako batean, ordea, gizonak haurra besoetan hartu eta bi emakumeei agur esan eta umearekin alde egin zuen Bulebarrean. Orduan hitzik gabe baina zer pentsa ez nekiela gelditu nintzen.

▶ **BESTE ADIBIDE BAT.** Beste adibidea ilunagoa da, eta etorkinekin eta nire aurreiritziekin du zerikusia. Aste honetan ohartu naiz etorkinak ikusten ditudanean edo burura datozkidanean, istorio beltzak eta ezkorak baino ez ditudala izaten. Pena ikaragarria edo beldur handia ematen didate, erdi-bidekorik ez dago.

Obsesio berezia dut, gainera, albaniar-kosovoa-rrakin. Zonalde horretakoak beti lapurretekin, bortxaketa edo militar arraroekin lotzen ditut (hemen horrelakoak ez baleude bezala) eta, jakina, nire burutazio eta istorioak bide horretatik doaz. Lotsagarria da, baina horrela da. Eta hemen komunikabideen indarra aipatu nahi dut. Horixe da gaur egun etorkinen inguruan telebistatik edo egunkarietatik jasotzen dugun irudia. Etorkinak beti biolentzia, lapurreta eta hilketekin lotzen dituzte, eta badirodi nire buruak ere hori berehala asimilatu duela.

Olentzerok ere ez dit ikusezin izatea ekarri baina urteberrirako lana utzi dit: estereotipo eta burutazio ilunak alde batera uztea. Ea lortzen duan...

▶ **BAINA JARRAITU EGINGO DUT.** Hori dena kontutan izanda ere gauza bat argi daukat: nire istorioak sortzen jarraituko dut. Jendearen inguruan amesten eta asmakizunak egiten jarraituko dut. Izan ere, askotan ez al da politagoa eta samurragoa gure ametsak eta irudikapenak, bakoitzak sortzen duen errealtatean bizitzea, benetako errealtate askotan gordin eta ilunean baino?

urte berri on

ana mari egana jantzi denda
agurre oparidenda
azkue jantzi denda
gemma l'irilidenda
iturralde iturgintza
burundarena oinetal'oa!
gotain lurreindegia
jone eta mail'ar estetika zentrua
jostaldi l'irrola!
lidia jantzi denda
martina isasti jantzi denda
natura belardenda
torrealday ahol'ularitza
urrestilla jantzial'

Trauskil ▶ Jon Berdejo



Galdetuz ▶

Herriko zer festa egun gustatzen zaizu gehien?

EIDER ITURRALDE ▶

azpeitiarra



“Niri herriko festa guztiak gustatzen zaizkit, baina festa baztuk aukeratzekotan,

karnalak aukeratuko nituzke. Zezenen ibiltzea eta mozorrotzea ditut gustuko”.

IDOIA LANDA ▶

azpeitiarra



“Niri gehien sansebastianak gustatzen zaizkit. Danborra jotzea gustukoa dut,

baina gehiago gustatzen zait kantinera edo banderadun irtetea”.

LARRAITZ LARRAÑAGA ▶

azpeitiarra



“Niri saninazioak gustatzen zaizkit gehien. Festa horietan tiobiboak egoten dira herrian

eta niri horietan ibiltzea asko gustatzen zait. Gainera, asko ibiltzen naiz”.

AINHOA LIZARRALDE ▶

azpeitiarra



“Azpeitiko festa denak asko gustatzen zaizkit. Ez dut festa bat bestea baino

nahiago, denetan gustura ibiltzen naizelako”.

Hau ▶

Bertsotan



Aitor Aranguren

Herrian eragina izango duten bi gai nituen buruan bira eta bira: arau ordezkatzailen prozesuan eta hondakinen arloan alderdi politikoek duten jarrera. Baina arnasa hartu eta berriro akuiluari kortxoak ipini nion puntan. Igande goizean ekingo nion idaztearen torturari gai leunago batekin. Eta halaxe, *Berria* jaso nuenean, lehenengo orrian Xabier Paya Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapelduna azaltzen zen. Alkandora azpian zuen kamisetak atentzioa eman zidan, denok ezagutzen dugun euskal preso baten argazkia zuelako, eta nabaritzen zen argazkia nahita zegoela aterata baina tira, kasu handiagorik ez nion egin.

Txapelketaren berri ematen zuten orrietara heldu nintzenean, ordea, are gehiago harritu nintzen bertsolari guztiek kamiseta berbera zutela ikusi nuenean eta aho bete hortz egunkaria itxi nuen. Bazkaltzen ari ginelan, berriz, Xabier Paya telebistan ikusi nuen amari eskaini zion azken agurreko bertsoa botatzen. Erdaraz bukatu zuela baino ez dut gogoratzten. Zer-nolako bertsoa bota zuen arrastorik ez. Txundituta nengoen.

Bai, egia da, aukera pertsonala da eta denetarik ikusita gaude, behin errege bat ere bai maindire batekin. Baina bertsolaritzan bereziki gertatzen dena, kultur adierazpen edo aurkezpen publiko bakoitzean denek, kolore batekoek eta bestekoek, berdin eginez gero, zein penagarria, ezta? Futbol jokalaria, politikaria, liburu baten azalean, mila lekutan... agian, normala izango da eta ni izango naiz beste mundu batekoa.

Onartu beharra daukat, ez naiz oso bertsozalea baina atsegin dut eta errespetu handia diot euskal kulturaren errotuta dagoen trebetasun horri. Eta honek ez dio laguntzen bertsolaritzari, ez dio onik egiten. Hurrengoan euskaldun batek gogo gutxiagorekin jarraituko du bertsolaritza. Baina tira, bat galtzeagatik ez da ezer gertatzen.

Apunteak ▶

GORA.

Giro polita egoten da urte zaharretan goiz eta eguerdi partean Azpeitian, San Silbestre krosa dela-eta. Eskertzeko da Xeye Atletismo Taldeak antolaketan egiten duen lana eta probaren sortze lanetan ibili zirenen adorea. Xeyek, gainera, kroSean biltzen duen dirua *Urola Kostako Hitza*-ri ematen dio.

BEHERA.

Azkenaldian asko zabaldu den kontua da: jendea kalean doala irristatuta –euria egindakoa, batik bat– edo koskekin erori egin da, eta zartadakoak hartu ditu; esaterako, emakume bat zazpi aldiz erori da leku berean. Toki batzuen baldintzak hobetu egin beharko.



Danbor-joleak, plazan. UZTARRIA

GALDERA.

Aurten helduen danborradan talde berria egongo da: Izarrait Txoko. Beste bi elkarte eskatuta dute irteeta: Basazabalek eta Ziripotek. Bi hauek ere irteten dutenean, sartuko al dira talde denak plazan? Noiz iritsiko da talde batzuek plazatik kanpo jo behar izango duten urtea?

Ba al dakizu... ▶

...zaharretako tarbernan (Aitonena I-ekoan)

lan egiteko jendea behar dutela, deialdiak egin izan dituztela taberna hartzeko eta oraindik inor ez dela aurkeztu?

Zer dio? ▶ Arantxa Sarasua (Espainiako Gerra bizitakoa)

Akats mingarri bat zuzendu nahirik

Uztarriak argitaratu eta Amaia Mendizabalek idatzitako *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburuan, Maria Dolores Odriozolarekin eginiko elkarrizketan adierazten den akats bat zuzendu nahirik idazten dut, nazionalak Azpeitian sartu ziren egunean berakikusi zuen plazako irudiari buruz, esanez aguzila aurkitzen zela bertan (liburuaren 56. orrialdean).

Egia da, nire aita zen bera. Gogoratzen dut, nolatan nire amak esan zion arriskuan jarriko zuela bere burua eta ez etxetik ateratzeko. Nire aitak, nahiz eta jakintsua ez izan, helburu bezala izan zuen beti lana zuzen betetzea eta, bere iritziz, derrigorrezkoa egin zitzaion une horretan kalean egotea.

Maria Doloresek dio bandera txiki bat zuela eskuan eta, egia esan, ez dut inoiz horrelako berririk izan bizitza osoan. Liburuan agertzen den bezala, norbaitek emandako agindua betetzen ote zuen?

Maria Dolores, berehala bukatzen duzu esanez, "segituan utzi zuten libre". Baina nik erantsi nahi nioke ondorioan gertatu zitzaiona. Egun gutxira, nire aita bere kargu 'berezi' hartatik kanpora bidali zuten eta sei urtean lanik gabe egon behar izan zuen. Arrazoia? Gerran beraien bizitza arriskuan jarri zuten erreketeei lana eman behar zitzaizela eta gure aitaren postuan beraietako bat jarri zutela.

Gertatuaren berri jakitean, Julian Elorzak honela esan zuen: "*¿Al hombre mas recto del ayuntamiento le han dejado sin trabajo? ¿Para esto hemos salido a la guerra?*". Hau argitu nahi izan dut, egiaren zati bat alde batera uzteak benetan mindu naudelako.

Ongidakit, nahiko nahigabe izan zenuela anaiaren heriotzarekin. Esaten duzun, lan asko egin zenuen erizain eta, jakina, nolatan konturatu inguruan zenituen pertsona eta sendien egoera mingarriarekin?

Bizitzaren zentzua

Noticias Obreras izeneko aldizkariaren azken zenbakian eskaintzen zaigu eguneroko bizitzari buruzko gogoeta bat. Idazleak dio, "itxaropena eta zoriona bizitzaren aurrean ditugun jokabide nagusietakoak direla, eta eguneroko gertakizun apaletan eraikitzen direla". Gure eguneroko bizitzari zentzu bat emateko aholku batzuk eskaintzen ditu.

Ona da jokabide positiboak gogoan hartzea, zaintzea: besteez ondo hitz egitea; albiste onak azaltzea; inguruko edertasuna estimatzea; gertakizunen oinarrian dauden utopia aztarnak antzeman eta horien berri eskaintzea. Gure mugak apaltasunez onartzea eta gertakizunak apaltasunez eta sakontasunez, jatoritasun handiz bizitzea ere garrantzizkoa da. Barneko bakea eta lasaitasuna mantentzea garrantzizkoa da. Ingurukoek antzemango dute, baita eskertu ere.

Bizitzako gauza txikiak estimatu eta zaindu, zentzu bat dutela sinistu, zentzua ematen saiatu. Geure bizitzaren, denboraren jabe izaten ahalegindu. Baita geure buruaren, gure jokabide eta sentimenduen jabe izaten ere. Garrantzizkoa dena gogoan hartu, eta nekatzen gaituen azalekoa erlatibizatu. Horrela bakarrik gordeko ditugu, bizitzan garrantzizkoa denari aurre egiteko beharrezko ditugun indarrak. Gure izate eta bizitzan ona eta baliotsua dena gogoan hartu. Ondo egiten duguna gure ezin eta akatsak baino gehiago baloratu. Etsipenean eta ezinaren larrian ez erortzen saiatu. Konpromiso eta esperientzia berriak bizitzeko prestatu. Kontenplazioa (bere zentzu zabalean) zaindu; pertsonenganako gertutasuna eta bihozberatasuna landu.


Elkar zaindu eta babestu. Horrela egingo diogu aurre bizitzari, zenbaitetan berea duen iluntasunari. Ea mesederako ditugun. Urte berri ona bat izan dezazuela guztiok.

◀ Eta beste



Kepa Susperregi

Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



Bat hirutara ▶

▶ Xabier Aranburu, Mikel Aizbitarte eta Haizkurgi Uzin oraingoan herrirako Olentzero egokiaren bila ibili dira, eta herritar egokia ere topatu omen dute lan horretarako. Olentzero funtzionaria izateko plana ere egin dute.



Xabier Aranburu Mikel Aizbitarte Haizkurgi Uzin

Lan eskaintza publikoa

Mikel. Ikusi al duzue gabonetan Olentzeroren kalejira?

Oilo-ipurdia jarri zaidak horrenbeste jende, geurea den ohitura bati jarraiki, pozez eta algaraz saltoka eta brinkoka ikusi ditudanean. Gabon zorientsu eta euskaldun baten islazuan!

Xabier. Zenbat Olentzero zebilen kalean? Urtero, laupabost aritzen dituk ordu berean hara eta ona; azkenean, umeengan ilusioa sortu beharrean, nahaste-borraste itzela eraginez.

Mikel. Oker habil, pagano halakoa! Urteak kostatuta izan bada ere, herriak Olentzeroren gabon kalejira bateratua egitea ahalbideratu dik. Ikastetxe guztiek parte hartu ditek bertan eta ni ikaragarri poztu nauk. Errege handi usteen itzalpetik atera eta merezi duen gorazarrea jaso dik gure tripontziak.

Xabier. Bazuan ordua Olentzero bakar baten aldeko apustua egiteko, moteil! Hala eta guztiz ere, ez zuan erraza izango jendaurrean itxura duina agertuko zuen norbait topatzea. Izan ere, aurreko urteetan, Olentzeroren pertsonaia antzeztu zuten guztiek sinesgarritasun handirik ez zitean erakutsi. Gaur egungo umeak ez dituk inozoak eta ez duk erraza, beraz, kotoiz betetako tripa

zaku baldar bat daraman giza seme bat Olentzerotzat hartzea.

Haizkurgi. Ados nagok hirekin. Herriko umeek hori baino errespetu handiagoa merezi ditek! Niere Olentzeroren kalejira bateratu baten alde nagok, baina sinesgarritasun minimo batzuk beteta. Ildo horri jarraiki, herrian bolo-bolo dabilen proposamen batekin natorkizue. Duela egun batzuk, *Kalero*-k eta bere laguntxo berriek, Olentzero azpeitiar eta funtzionari baten aldeko erronka plazaratu zitean.

Xabier. Olentzero funtzionari bat? Horixe bakarrik falta genian, azpeitiarron kontura Olentzero bezalako pertsonaia kuttunarena egingo duen parasito sozial bat mantentzea.

Haizkurgi. Bota behar dudun proposamena entzun aurretik ez hadi bekoz kotu. Herrian nahi eta nahiezkoa duk Olentzerori bizia emango dion pertsonaia, bakarra eta sinesgarria izatea. Ondotxo dakizue ez dela erraza izaten pertsona egokienarekin topo egitea lan hori muturuk izaten denean. Zergatik ez da sortzen fun-

tzionari lan postu bat, pertsona baten betebeharrak bakarrik Olentzero izatea izanik?

Xabier. Non sinatu behar da kolpe zorrik jo gabe jauntxoaren pare bizitzeko?

Haizkurgi. *Kalero*-ren planaren arabera, funtzionari horrek urte osoko prestakuntza berezi bat jaso beharko likek, gabonetan, ume guztien benetako 'errege' bilakatzeko. Olentzerok, Xoxote aldeko borda zahar bat izango dik bizilekutzat. Haren betebeharrak nagusia dieta zorrotza jarraitzea izango duk. Dieta, Bordatxoneko menu koipetsuan oinarrituta egongo duk: olio bostitutako solomo, urdai eta odolkiak. Barazkiak eta fruituak guztiz debekatuta edukiko dituk. Astero bi udaltzaingo joango zaizkiok janaria ematera eta, bide batez, Olentzeroren pisuaren eboluzioaren informea egin beharko ditek.

Mikel. Alkohola ere debekatuta izango al likek Olentzerok?

Haizkurgi. Ez, moteil, lanposturako hautagai izateko, nahi eta nahiezkoa izango duk botila ardoren laguna dela frogatzea. Behin Olentzero lanean ari dela, udaltzaingo-

ek sarritan egingo ziotek alkoholemia frogatzea, ziurtatzeko, gabonak iristean eta herrira jaitsi beharra izaten duenean, neguko hotzak ez dituela bere masailak zurbilduko.

Mikel. Olentzeroren betebeharrak jatera eta edatera mugatuko al dira?

Haizkurgi. Bizarra ezingo dik moztu urte osoan, eta bere garbiketa Azketako iturrian egin dezakeenera mugatuko duk. Bestalde, Olentzerok bere neurriak eginiko prestakuntza teknika izango dik. Oilagorrra elkarteko kideek, txondorrean nahi adina ikatz egiteko eta danbolinean gaztaina 'kiskaliak' prestatzeko ikastaro bereziak bideratuko dituzte. Asto gainean eroso joateko klase daktikorik ere ez duk faltako.

Mikel. Hik kontatu berri duan proposamenaren baldintzak beteko dituen hautagai bakarra ezagutzen diat nik Azpeitian: *Panpi*. Jatuna, zurruteroa eta pelutxezko hartz bat bezain maitagarria. Gainera, gaztea izanik, urte askorako Olentzero izango genikek Azpeitian.

Xabier. Proposamen ero hori aurrera aterako balitz, bestelan bat egitera behartuko nikek gure potoloa; gabonetan herrian kalejira egiten duen bitartean, balkoietatik zintzilik dauden Noel Aitaren irudi atzerriar eta zentzugabeak kentzea.






Goian, Sammic Azpeitian egon den tokia. Behean, Azkoitiko, obretan.



Goian, Zubiola Azpeitian egon den tokia. Behean, Azkoitiko lantokia.



SAMMIC, BASARTERA.

Datuak.

- ▶ 150 bat langile ditu gaur egun.
- ▶ 45 urte daramatza Azpeitian, Landeta auzoan.
- ▶ Janariak prestatzeko eta kontserbatzeko edota sukaldarako ontziak garbitzeko makinak garatzen ditu.
- ▶ 2007ko udara aldera joango dira Azkoitira, Basartera.
- ▶ 1997an, sortzaileek Enodis Erresuma Batuko enpresari saldu zioten lantokia, baina 2000. urte inguruan, 3i-k, Elkarkidetzak eta Geroak inbertitu zuten Sammicen eta enpresak independentzia lortu zuen.


go, eta guk aurrera egin behar genuen. Guk orain behar genuen beste leku bat eta Azkoitian topatu dugu, Juin-Txiki industriagunean (Eroski atzean), eta hara joan gara urte hasieran. Hau dena ez da oraingo kontua. Izan ere, orain 8-10 urte Azpeitiko aurreikuspena egin zutenen akatsaren ondorioa da gaur lur industrialekin gertatzen ari dena. Herrian lurrak falta dira eta lur bila kanpora joan behar izan dugu".

AZPEITIKO UDALA ▶

Jose Luis Mangas (Udaleko Industria, Merkataritza eta Turismo batzordeburua)

"Etorkizunerako pauso sendoak ematen ari gara"

"Sammic eta Zubiola etorri ziren Udalera, pabilioi berriak egiteko lur industrialak behar zituztela zioten, baina Azpeitian ez dago industria lur publikorik prestatuta. Larreko lurrak daude, baina lur



ZUBIOLA, JUIN-TXIKIRA.

Datuak.

- ▶ 50 bat langile ditu gaur egun.
- ▶ 2006an 40 urte bete ziren Zubiola Kooperatiba bilakatu zela.
- ▶ Betitik Azpeitian egon da enpresa; Gerratziki industriagunean hain zuzen ere.
- ▶ Urtarrilaren hasieran joan dira Juin-Txiki industriagunera.
- ▶ 2004an Zilarrezko Q saria jaso zuen Zubiolak eta 2006an, berriz, Urrezko Q.


horiek pribatuak dira, ez dira Udalarenak. Sammic eta Zubiola saiatu ziren Larreko jabearekin akordio batera iristen, baina ez zen akordiorik lortu. Udalak egin du bi enpresak herrian gelditzeko ahalegina, baina ezin izan dugu, baina biak presa handiarekin etorri ziren. Larrinen eta Larren asmoak badaude, baina bere denbora behar dute. Biei esan genien Larrinen egongo direla lur industrialak, baina bakoitzak enpre-

sako estrategiak eta beharrak ditu eta enpresek normalean euren helburuei heltzen diete inoren zain egon gabe. Etorkizunerako pauso sendoak ematen ari gara, milaka metro lur industrial egongo direlako Azpeitian enpresak eraikitzeko, eta hori da garrantzitsua. Gainera, jendea alde egiten duenarekin gelditzen da, baina enpresak etorri ere egin dira. Enpresen mundua horrelakoa da". ◀

eskulturen

ARTEA

Diego Cruzek Diart dendan pintura klaseak ematen ditu baina, horretaz gain, eskulturak egiten ditu neurri naturalean



ESKULTUREN ARTEA DIEGO CRUZEN ESKUETAN.

Hamabost bat eskultura egin ditu dagoeneko Diego Cruz azkoitiarrak. Neurri naturalean egiten ditu eta postaria, umeak jolasean, garbitzailea... dira bere lanen protagonistak.



LAN ZAILA.

Ez da lan erraza jakitea nola janzten den detailez detaile garbitzaile bat edo postari bat. Horretarako, liburuez eta Internetez baliatzen da azkoitiarra.



HASI ETA BUKATU.

Diart dendan duen gela txiki batean egiten ditu eskulturak. Kostatuta, handik atera eta furgonetan Eibarko fabrika batera eramaten ditu, haiek enkargatzen dizkiotelako.

NEURRIAK.

Orain dela 11 bat urte hasi zen Diego Cruz neurri naturaleko eskulturak egiten. Ordura arte txikiak egiten zituen. Neurri naturalean lehen eskultura, umeak San Blasekin izan zen.



»

MODELOAK.

Eskulturentzat neurriak hartzeko, inguruko jendea hartzen du modelo gisa. Eibarrerako egin zuen eskultura bat oso berezia da, bere seme-alaben eskultura baita.



ABIATZEKO.

Dendatik abiatzerako, eskultura ondo lotu behar da, eta bustitzea ere komeni izaten da. Eskultura bustita, zailagoa izaten da puskatzea.

ETA LABERA.

Behin dena prestatuta duenean, inguruan dabilzan langileei deitu eta kotxean sartzen laguntzeko eskatzen die. Beti topatzen du norbait lan horretan laguntzeko.



kutxa



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40



50 URTE



datu eta istorio

Umeen danborrada garaian beti haurrek irten al dute? San Sebastian eguna beti jai izan al da? Nola ekarri zituzten 1957an arropak? Megafonia noiztik?...

► Testuak: Enekoitz Esnaola ► Argazkiak: 'Azpeitiko danborrada' liburutik hartuta

Eta karnabaletan behin ere izan al da danborrada? Eta mikeleteen txapak nondik ekarri zituzten?... Halako dozenaka datu eta istorio daude *Azpeitiko danborradak* liburuan. Hilaren 13an aurkeztuko du Udalak (Txakel eta Idazti enpresek egin dute). 50 urte dira herrian danborrada sortu zutela. Hemen 50 datu eta istorio.

1 Orain 50 urte egin zuten lehen danborrada Azpeitian, 1957an: umeena. Ez San Sebastian egunean; bezperan. Gaueko hamarretan hasi nahi zuten, baina ez zieten utzi apaizek eta gurasoek. 1958tik San Sebastian egunez izan da haur danborrada.

2 1957koan txikien danborradakoak ez ziren, gaur egun bezala, 8-9 urtekoak, baizik eta urte batzuk gehiagokoak.

3 Bi donostiar apaizen ideia izan zen Azpeitian danborrada sortzea: Cecilio Arabaolaza eta Baltasar Iglesiasena. Aitzakia, Arabaolazaren esanetan, "Soreasuko San Sebastian parrokia izan zen". Oargi elkarteak hartu zuten antolatzeko ardura.

4 Helduen danborrada, berriz, 1959an hasizen, San Sebas-



Roberto Olaizola, Zezenzaleetako danbor-jolea. Aurten haiek San Sebastian egunean arratsaldez ere irtengo dute.

tian bezperan. Oargiri, El Andaluz Zezenzale Elkarteak eta Oñazbide taldeak lagundu zioten. Jantziak, hauek: Oargikoak napoleoi, El Andaluzekoak sukaldari eta Oñazbidekoak gastadore.

5 Gastadoreak oraindik hor daude... ikusteko moduan. Liburuan jartzen du: "Badirudi historikoki gastadoreak nahiko altuak zirela, aurkariak kikildu asmoz, eta hori nolabait mantendu izan da Azpeitian".

6 Pedro Illarramendi ere hasieratik dago, 1957tik. Aurten-goan ere ariko da, Alkartasunako zuzendari (1967tik da).

7 Txikien danborradan lehen zuzendaria, Luis Ibarzabal izan zen. 1963tik Kanadan bizi da eta sansebastianak "sekulako herri-minarekin bizi ditu Atlantikoaren bestaldetik".

8 1957an Iruneraino joan behar izan zuten txikientzat jantzien bila. Ez zen bidaia erraza izan bueltakoa: topoan Donostia-ra, Baskongado trenean Zumaia-ra eta Urola trenean Azpeitira. Jantziekin, jakina.

9 Aurreneko hark ez zuen ondo irten: euria egin zuen eta jende gutxi zegoen kalean.

10 1972an oso eguraldi txarra egin zuen San Sebastian egunean eta txikien danborrada jai karnabalean egin zuten.

11 Orain dela 2 urte ere euria egin zuen San Sebastian bezperan eta ika-mika handiak sortu ziren. Orduan hartu zuten erabakia: handik aurrera taldeei sirak banatzea.

12 1960an ez zuten txikientzat jantzirik lortu, astirik ez arropa propioak egiteko eta helduek irten zuten txikien partez San Sebastian egunean. »

13 Danborradaren lehen urteetan San Sebastian eguna ez zen jai izaten Azpeitian. 60ko hamarkada hasieratik bai.

14 Frankismoa eta gero, 1979ko maiatzean egin ziren lehen udal hauteskundeak, eta 1980tik Udala da danborradaren antolaketaaren arduraduna. Aurretik, batik bat, Oargi eta Herri Zale aritu ziren lan horietan.

15 Helduak jotzen hasi zirenean, entseatzen Azoka Plazan hasi ziren. Iaz egin zen leku aldaketa: Izarraitz frontoira.

16 Bakoitzak bere teoria du danborradaz. Joxe Karapeto Irintzi taldeko zuzendariarena: "Plazara iritsi aurretik Erdi kaleko pasierak, helmugara iristen ari direnean ziklistek maillotarekin egiten dutena gogoratzen dit".

17 Ahal dena egiten da danborradan irteteko. "Gure taldea berezia da; bost-seiren artean eratutakoa da, ez baita elkarre bat", dio Bittor Olaizola Arrantzaleetako zuzendariak.

18 Ahal zuena egin zuen Julian Eizmendik 2004an, alkate bezala bere lehen sansebastinetan. "30 bat urtean (Arrantzaleetan) danborradan parte hartu ondoren, ez nuen tradizioa galdu nahi alkate bezala. Taldeak plazara iristean, bost bat minutuko tartea izaten dela-eta, balkoira igo eta bandera igotzeko denbora izango nuela esan zidaten". Izan zuen.

19 Irteteko estiloez bat. "Pilotari onak bezala, erlojuak kentzen genituen eta puruak itzaltu", dio Imanol Azkuek hasierako garaiez; Lagun Arteako zuzendari izan zen -1976an desagertu zen taldea-.


20 Distantziez hau, Imanol Azkuek berak kontatua: "Geure arteko distantziak erres-



Umeen danborrada, 1957. urtean. Hura izan zen lehen danborrada.



1959ko karroza. Gaia: Danborra.



Danbor-joleak plazan.



Ardozaleak taldea, San Sebastian egunez goizean parrokira sartzen.

petatzen ahalegintzen ginen. Soldaduska egina genuen eta nabaritzen zen".

21 1980an hasi ziren San Sebastian egunean goizean parte hartzen taldeak: Gure Ametsa eta Arauntza (honi 1982an lekukoa hartu zioten Ardozaleek).

22 Taldeak iaz hasi ziren San Sebastian egunean arra-

tsaldean parte hartzen. Hain zuzen, Sanjuandegi eta Barratsu. Aurren Zezenzale taldeak ere irtengo du, baita txikien danborradako hamar taldeen bosna ordezkarik ere.

23 Kepa Susperregi erretoarearen ekimenez, 1997tik San Sebastian egunean goizean Gure Ametsa eta Ardozaleek *San Sebastian martxa* parroki barruan jotzen dute. Euria ari zue-

lako parrokira sartzeko esan zien erretoreak, eta halaxe sortu zen ohitura.

24 Aurreneko talde mistoa, 1981ean. Bertan, emakume bat zuzendari -Amaia Garmendia- eta gizon bat bandera-ekin -Iñaki Regil *Matxote*-. Taldea Amnistia, antinuklearrek... osatzen zuten. 1982tik, presoan aldeko taldea da Amnistia.

25 Helduen danborrada gauzez da eta ondo afaldu behar. Hasierako afariez Bixente Lizaso El Andaluzeko kideak: "Menua: angulak eta txuleta". Joan ziren angulak ia denentzat.

26 Haurren danborrada bermatzeko buruhausteak izan zituzten 1986ra arte. Orduetik ez: ikastetxeak irteten hasi ziren, Kepa Ibarzabal Udala Festa batzordeburuaren ekimenez.

27 Betharramdarretako ikastetxekoei mikellete jantziak eman zizkieten. Trajeak berritzean, Arkautera joan ziren Ertzaintzaren egoitzara, jantziak ikusteko.

28 Aurretik, berriz, txikien danborradan mikelteen arropa berriak egin zituztenean, mikelteen txapak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zizkieten. "Txapak benetakoak ziren. Utzikeria medio, bueltatu gabe geratu ziren", esaten du Maria Jesus Bastidak.

29 Itsasi Dantza Taldean, haurretan zozketa egiten dute, kantinera zeinek irtengo. Aurrez kantinera irten gabekoan artean egiten dute zotz.

30 Urteetan egin zuen haur danborradan karroza Inazio Agirrek -batzuetan etxeko laguntzarekin-: 1958tik 2000ra arte, salbuespen batzuekin. Agirre familiak dena 37 karroza egin ditu.



Helduen danborrada, 1959an. Orduan izan zen nagusien aurrenekoa.



Itsasi Dantza Taldekoak. Haiena da umeetan talderik zaharrena; 1984koa da.

31 Inazio Agirre bi aste lehenago arte ez zen lanean hasten, ideia aurrez landua izan arren. Gero, "gainera, ez da gauza bera paperean marraztu eta hiru dimentsioetara pasatzea", dio Mari Karmen alabak.

32 Lehen danborradan —1957koan— ez zen karrozarik izan. 1958an aurrena. Orduko karrozaren gaia: *Gurdia*.

33 "Karroza egiteko gai bat aukeratzean herria izan behar da kontuan", esaten dute egileek. Dena ez da izan herriari buruzkoa, baina izandenean, bertso laritza, dantza, pertsonaiak, danborra, kioskoa... izan dira. Azpeitia herri zezenzalea izan arren, karroza gai horretaz behin baino ez dute egin: 2003an, zezen-plazaren 100. urtemugan. Sokamuturraz ez dute inoiz egin.

34 Baina sokamuturra 'egon' da danborradan: behin San Sebastian egunez eguerdian zezenak ia harrapatu zituen Gure Ametsa eta Ardoza-leetakoak.

35 2003an karroza zezen-plazaz egindakoan, arazoak izan zituzten arropak lortzeko. "Toreatzaila jantzirik ez zegoen inguruan eta Zaragozatik eskatu behar izan genuen azken unean", dio Eli Beobide egileak.

36 1975ean frankismoa bukatzean, karrozetan ere

ageri zen aldaketa; aukeratutako gaietan, alegia. 1977an *Euskal Herriko mapa* izan zen gaia, Andoni Albizuri *Katxo*-k eginda.

37 1981ean karrozako gaia: *Pakea*. Oraindik lortu ez dena. Karrozaren egileak: Inazio Agirre eta Mari Karmen Agirre.

38 Danborradaren ibilbidea bera izan. 70eko hamarkadan aldatu zutela diote. Ordura arte plazara beti pilotalekutik sartzen ziren baina, inbutu modukoa sortzen zenez, Erdi kaletik sartzea erabaki zuten. Ez da geroztik aldatu hori.

39 Azpeitiko danborradan beti ez da Azpeitiko Musika Banda bakarrik aritu: Legazpikoa, Azkoitikoak, Tolosakoa, Zestoakoa... aritu izan dira. Arrazoiak: gero eta talde gehiago zeuden eta musika entzun beharra zegoen. 70eko hamarkadan gertatu zen banden hazkundea, eta Udalarentzat ez zen merkea: San Sebastian bezperako gastua azkeneko 300.000 pezetakoa zen. Gainera, ez zen erraza kanpotik bandak ekartzea. "Bande ez zuten etorri nahi izaten. Ez ziren profesionalak eta hurrengo egunean lana egin behar izaten zuten musikariek", dio Ramon Etxeberriak (1979-1983an Udal Festa batzordeburua izan zen).

40 Kaleetan megafonia, 1980an jarri zuten. Efek-

tiboagoa izateaz gain, merkeago ere bazen: 180.000 pezetako gastua zeukan. Altavoces Eguiri enkargatu zitoten.

41 1965ean ez zen danborradarik izan —1969 eta 1971n ere ez— baina Musika Bandak ez zuen jairik izan: dantzarako piezak jo zituen. Gainera, "Azpeitian danborrada egiten hasi baino askoz lehenago jotzen genuen guk danborradako *Diana San Sebastian*", Iñaki Alberdi musikariak esaten duenez.

42 Jose Luis Frantzesena Azpeitiko Musika Bandako zuzendariak 1986an sartu zuen lehen aldiz herriko pieza bat: *Soreasuko Sebastian*. "Danborradari herriko nortasuna eman nahi nion. Donostiakotik bereiztu, baina ezer kendu gabe".

43 Iaz CDa grabatu zuten obra guztiekin. Joxe Arruti musikaria: "Frantzesenak obra tradizionalak moldatu egin zituen modu originalean jo genitzan, konpasak Sarriegik idatzi bezala entzuteko".

44 Helduen danborradan aurten, gastadoreez gain, 19 taldek irtengo dute. Izarraitz Txoko izango da talde berria. Ziriopot eta Basazabal elkarteek eskatuta dute irtetea. 19 taldeen artean 892 lagun dira; batez beste, 47. Talderik jendetsuena Itsasi da, 64 lagunekin. Gastadoreetan 16 dira.

45 Helduetan bost talde 60ko hamarkadan sortu-takoak dira —Landeta eta Gure Ametsa dira beterranoenak: 1966koak—, 70ekoan sei talde sortu ziren, 80koan hiru, 90ekoan bi eta hamarkada honetan hiru. Gastadoreak 1959tik daude.

46 Egizale-Landetakoek sorreran komeriak izan zituzten arroparekin, Udalak ez zielako uzten baserritar bezala irteten. Herritarrek Landetakoan alde egin eta hauek azkenean lortu zuten 1966an baserritar irtetea.

47 Haurren danborradan hain mabi taldek irteten dute. Denera, 522 ume; batez beste, 43-44. Talde denak 40 eta 48 lagun artean dabilta.

48 Txikietan Itsasi da talderik beterranoena: 1984tik dago. Ikastetxeen taldeak, 1986tik daude.

49 Karrozan erreginak hasieratik beti helduak izan ondoren, 1987tik haurrak dira protagonista. Nekane Astigarraga izan zen helduetan azkeneko erregina, 1986an, Loiolako Herri Irratiaren 25. urtemugari eskainitako karrozan.

50 Ana Mari Agirrek berrogeitaka urte daramatza banderak bordatzen. "Aurten Txoko elkartearentzat ari naiz bat egiten. Horrekin, 24 izango dira nik eginak". ◀

JOAN...



Gurean ▶

BENITO LERTXUNDI

▶ kantaria

“Festa asko gustatzen zaizue”

Orkatx Kultur Elkartek, jazarpen judizialagatik duen zorra ordaintzeko dirua biltzeko, Benito Lertxundi oriotar kantaria ekarri zuen Azpeitira abenduaren 23an. Izarraitz pilotalekuabete egin zen. Kontzertuaren ondoren egon zen Uztarría Lertxundi-rekin.

Askotan etorri izan al zara Azpeitira?

Ni Azpeitira kontzertuak ematera etortzen Ez dok 13-ren garaian hasi nintzen. Garai hartan askotan etortzen ginen, gainera. Gero, bakarrik ere etorri izan naiz batzutan. Azkena, Kilometroak 2000ko ospakizunetan.

Nolakoak gara azpeitia-rrak?

Oso ‘telubikoak’ zarete. Hau da, festa asko gustatzen zaizue baina, batik bat, euskaldun peto-petoeen festari lotuta zaudete; bertso-lariak, trikitilariak... Oso jende alaia eta sanoak zarete. ◀



Harrera batera Olentzerori

Lehen aldiz, herriko ikastetxe-ek batera eman zioten ongi-etorria Olentzerori. Abenduaren 24ko eguerdian izan zen hori. Olentzerori harrera egin ondoren, kalejira egin zuten, eta gero umeek plazan Olentzerori kantatu zioten. Umeekin izan ondoren, iluntzerako opariak prestatzera ezkutatu zen. Argazkian, Olentzero herriko kaleetan.



Autobus bati su eman zioten

Abenduaren 5ean, Zumaiaetik Zumarragarako bidea egiten zuen Euskotreneko autobus bati su eman zioten hiru ezezagunek. Azpeitiko Udalak “gogor” salatu zuen gertakaria. Argazkian, autobusa sutan.

Entrenatzaile berria dauka Iraurgi taldeak

Abenduaren 6an, Lolo Encinas, Lan Mobel Iraurgiko entrenatzaile postutik kenduzuten. Abenduaren 11n aurkeztu zuten entrenatzaile berria: Jorge Elordui. Argazkian, Elordui ezkerrean.



Haize hotza eta giro beroa

Aurtengoan ere hutsik ez zuen egin San Tomasek. Abenduaren 21ean herria talo eta txorizoz bete zen. Haize hotzak ez zuen giro ederra makurtu. Argazkian, taloak egiten.



ABENDUAK 2 ▶ Karelean musika tadeak (taldeko abeslaria, Olatz Prat azpeitiarra da), Euskadi Gazteko maketa lehiaketan epaimahaiaren saria jaso zuen. **ABENDUAK 12** ▶ Abrasivos Hermes S.A. enpresako langileek greba mugagabea hasi zuten, “soldata duin batzuen alde borrokatzeko”. Hiru egunera lan hitzarmena sinatu zuten eta greba egiteari utzi zioten. **ABENDUAK 18** ▶ Alaitz Olaizola azpeitiar idazleak Toribio Altzaga antzerki saria jaso zuen *Joanes itxaropenaren semea* obragatik.

URTARRILAK 13 ▶ *Azpeitiko danborradak* liburuaren aurkezpena eta jaialdia Izarraitz pilotalekuan, 22:00etan hasita. **URTARRILAK 19 (San Sebastian bezpera)** ▶ Helduen danborrada, 22:15ean. 00:00etan bandera igotzea. **URTARRILAK 20 (San Sebastian eguna)** ▶ 9:30ean goiz-eresia eta kalejira: txistulariak, banda, eta Ardozaleak eta Gure Ametsa danbor taldeak. 10:30ean prozesioa. 10:45ean meza nagusia. 12:00etan sokamuturra. 12:30ean umeen danborrada. 16:00etan haur parkea Olazko Amaren Plazan. 16:30ean sokamuturra, 20:00ak arte. Arratsaldean, umeak eta helduak kalean danborra jotzen. 20:00etan musika eta dantza plazan. 22:00etan pilota partidak Izarraitzen. 23:00etan helduen danborrada eta 00:00etan bandera jaistea. **URTARRILAK 21** ▶ 16:30ean sokamuturra, 20:00ak arte.



50. URTEURRENA OSPATZEKO JAIALDIA.

Azpeitian lehen danborrada izan zela 50 urte betetzen direla-eta liburua egiteaz gain, jaialdia ere antolatu du Udalak. Bertan Gipuzkoako beste zenbait herritako jendeak ere parte hartuko du.

URTARRILAK 13 ▶ 22:00etan ▶ Izarraitz pilotalekuan ▶ Udalak antolatuta

NAROA EPELDE ▶ 'Emakumeak pilotari' proiektuko langilea

“Emakumeak pilotaren mundura gerturatzea da helburua”

Urtarrilaren 27an, federatutako emakume pilotarien finala izango da Azpeitian, Izarraitz pilotalekuan. Finalean ez da azpeitiarririk izango, nahiz eta txapelketan parte hartu duen herriko bikote batek. Emakumeen pilota txapelketa bat egiteko, *Emakumeak pilotari* proiektua dago martxan eta Naroa Epelde da Azpeitian proiektu hori aurrera daramana.

“Emakumeak pilotari proiektua 2004an jarri zen martxan, eta bere helburua emakumeak pilotaren mundura gerturatzea da”, dio Epeldek. Proiektua hiru zatitan dago banatua: umeak daude, 25 urtetik gorako emakumeak ere bai eta federatuta jotzen dutenak.

“Eskola kirolean nirekin hiru ikastetxeetako 15 bat

gaztetxo dabilta. Gero Ikasberri Ikastolan beste talde bat ere badago. 25 urtetik gorako emakumeak, berriz, 17 dabilta”. Serio hartzen dituzte entrenamenduak, baina inor ez du ikusten oraindik txapelketan federatuta jotzen.

“Proiektua Gipuzkoako Pilota Federazioak antolatzen du, Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta gaur egun, Azpeitiaz gain, beste bederatzi herritan dago martxan”, dio Naroa Epeldek. ◀

URTARRILAK 27 ▶

I. Emakume Pilotari Txapelketaren finala.

▶ 17:00etan.

▶ Izarraitz pilotalekuan.

▶ Gipuzkoako Pilota Federazioak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

URTARRILAK 1-7 ▶

Belen erakusketa.

▶ 18:00etatik 20:00etara.

▶ Udaletxeko beheko solairuan.

▶ Udalak antolatuta.



DANBORRADA KO ENTSEGUAK ▶

Umeen entseguak.

▶ Urtarrilaren 15, 16, 17 eta 18an.

▶ 15:00etatik 17:00etara.

▶ Izarraitz pilotalekuan.


Helduen entseguak.

▶ Urtarrilaren 9, 11, 16 eta 18an.

▶ 21:00etatik 22:00etara.

▶ Izarraitz pilotalekuan.





LEIRE AGIRRE ▶ eskalatzailea

“ Aurten ez naiz jo

20 urte daramatza Leire Agirre azpeitiarrak eskalatzen. 12 urterekin Xoxoten eskalatu zuen lehengo aldiz, “bi horma txikitan”. Ondoren, Izarraizko harrobian, Araotzen, Diman... eta mundu mailako hamaika txapelketetan ibili da. Orain, 2007ra begira, munduko txapelketan ez parte hartzea erabaki du, dagoe-

neko lehiaketek ez dutelako lehen adina motibatzen.

Aurtengorako helburuak pentsatu al dituzu?

Bai. Orain arte txapelketa asko egin izan ditut, baina 2007ko Munduko Txapelketan ez irtetea erabaki dut. Aurten goi-mailako probetara ez naiz joango. Orain harkaitzean segituko dut, lasaia-

go hartuko ditut gauzak hemen-dik aurrera, bidaiatu pixka bat.

Eskalatzeak ere emango zizun bidaiatzeko aukera...

Bai. Bidaiatzea asko gustatzen zait, eta bidaiatu egin nahi dut orain ere. Eta bideoak grabatu, eta emanaldiak eman, hitzaldiak eman... Eskaladari lotutako gauza asko egin daitezke eta niri gusta-

tzen zaizkit horiek. Hitzaldi edo emanaldiren baterako deitutakoa poza hartzen duzu, baina hara joan behar duzu, ondo egin behar duzu egin beharrekoa...; horrek ere kezka sortzen du.

Eskaladak zer eman dizu eta zer kendu?

Eman, gauza asko eman dizkit. Azken batean, niri esperientzia



ngo **goi-mailako** probetara”

► Testuak: Ihintza Agirretxe ► Argazkiak: Iñaki Uranga

handi bat eman dit. Eta kendu, ez dakit zer kendu didan. Baina nik uste azkenean oreka bat dela guztia, gauza denek dute bere alde ona eta alde txarra.

Zer da zuretzat eskalada? Afizioa? Ofizioa? Bizitza ulertze-ko era?...

Lana, obligazioa den momentuan bihurtzen da lana niretzat. Eskala-

dari lotutako gauza asko egiten ditut eta, alde horretatik, bada lana. Baina nik egiten dudana, nik planifikatzen dudana eta nik nahi dudana egiten badut, niretzat ez da lana. Niretzat bizitzeko era bat edo bizitza aurrera eramateko beste filosofia bat da.

Zenbat urtean eskalatzen?

20 urtean. 12rekin eskalatu nuen

lehen aldiz; Xoxoteko aterpera egindako irteeran izan zen. Xoxoteko bi horma txikitari ibili ginen. Gero Xoxoteko egun batean, behera gentozela, harrobia ezagutu nuen. Azpeitian mendizaletasun handia zegoen garai hartan, eta giro horretan aste bukaerero harrobira alde egiten genuen, motxila hartu eta Urretatik gora.

Eta noiz erabaki zenuen eskalatetik bizi nahi zenuela?

Ez dakit noiz erabaki nuen hori, edo ez dakit behin ere hartu izan dudana. Horrela tokatu da eta horrela segitzen dut oraindik.

Eta zaila al da kirol horretatik bizitzea?

Ez da futbola. Baina bakoitzak ikusi behar du nola bizi nahi duen. ►

» Eskalatzea bizitzeko filosofia bat da niretzat, oso pertsonala. Bakoitzak ikusten du zer lortu nahi duen, nola bizi nahi duen, nola betetzen duen egiten duenak, zein diren bere helburuak... Hori dena bakoitzaren esku dago.

Nola egiten dituzu entrenamenduak?

Orain 2007rako pare bat proiektu ditut, eta planifikatu eta horretarako entrenatzen hasiko naiz. Entrenamendu planifikatu baten ondorioz etekin handiagoa ateratzen da, entrenamendu batere planifikatu gabekoekin baino. Helburu batzuk markatu behar izaten dira, eta horietara zuzendu.

Bakarrik entrenatzen al zara?


Bakarrik entrenatzea ona da, kronometroarekin lanean ari baldin bazara. Bulderrean ari bazara lanean, onena bi edo hiru lagunek batera entrenatzea da, pike handiagoa egoten delako eta orduan gehiago ahalegintzen zarelako. Baina bi edo hiru lagun baino gehiago aritzea ez da komeni. Harkaitzean hari zarenean, berriz, zu bazoaz gora eta, agian, 20-25 lagun izango dituzu behetik begira, Eta hori ezin da saihestu. Ez dakit hori famaren ordaina den edo zer baina...

Harkaitzean entrenatzeko, sokarako jendea beharko da ba?

Bai, norbaitek beti aseguratuta behar zaitu, derrigor behar da jendea. Jendearekin zaudenean

Harrobia

"Xoxoteko harrobian hasi naizelako izango da hain preziatua niretzat leku hori. Baina eskalatzeoko giroa han sortu zen, eta niretzat oso garrantzitsua da. Gauza asko ikasi ditut han, eta mila istorio dituzte hango hormek. Nire lehenengo 'bueloa' han egin nuen, baita lehen 7B ere, lehen pozak hangoak izan ziren... Denetik gertatu zait han. Han egin izan ditugun gaztaina janak, hango elkartzak... Lagun artean elkartzeko lekua da. Herriko leku txikia da, horma bat, baina bertan sortutako giroak beste gauza asko ekarri ditu."



hobeto izaten da, gainera. Askotan zu baino indartsuagoekin zaude eta horrek motibatu egiten zaitu edo, agian, horma osoa nola egin dezakezun esaten dizute eta hori eskertzekoa da. Normalean, gelditu egiten gara eskalatzeraz joateko. Hemen, Araotzeko eta Dimako kobazuloetan, beti egoten da norbait. Baina ona da badaezpada aurretik gelditzea. Gertatu zait etxetik Araotzeraino joan eta inor ez egotea eta akordatzeari inorekin ez naizela gelditu... Eta batere eskalatu gabe etxera!

Josune Bereziartu eta zu izan- go zineten aurrenetako punta- ko euskal emakume eskala- tzaileak. Zer aldatu da hasiera haietatik?

Eskaladak historia luzea du. 1995etik hona asko aldatu da. 1997an Josune eta biok joan

ginen Pragara, nire lehen Munduko Kopara. Eta poliki-poliki dena aldatu da. Agian, Josune eta ni ginen garai hartan lehenengoetakoak, orduan txapelketetan gu bakarrik geunden, orduan ez zebilen horrenbeste jende mundu honetan. Euskal Herrian beti egon izan da jende-harrobia. Euskal Herrian beti egin izan da kirol asko eta laguntzak ere badaude.

Eta Azpeitian zer moduzko harrobia dago jende aldetik?

Gorka Karapeto oso indartsu dabil aspaldian, eta beste jende asko ere hor dabil. Jendea, egon badago. Harrobia bai, baina kiroldegian rokodromo hobe jarri beharko litzateke. Ez diot dagoena txarra denik, baina polita litzakete instalazio egokia izatea. Ondo dago futbol zelaiak izatea, tenisko pistak egitea ere bai. Ez naiz



domusa



CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

kexatzen horretaz, baina eskale-tzeko ere instalazio hobeak behar harko lirateke. Herriak benetan zer kirol bultzatu nahi duen jakitea interesgarria litzateke. Baina hor goian daudenek beraien interesen arabera nahi dutena bultzatu-koto dute. Bitartean, guk Ondarbi-de atzean dugun lokal pribatuan segituko dugu entrenatzen. Baina, esan bezala, itxura antzeko rokodromo bat izatea ez legoke gaizki, egunen batean Munduko Txapelketaren bat egiteko edo...

Mutilen artean erraz egin al duzue bidea?

Emakumeen, kirolaren eta gizonezkoen eboluzioa ikustea besterik ez dago, gure bidea nolako izan den jakiteko. Emakumeak askoz gutxiago gara, guk gure arazoak eta geure istorioak ditugu. Batzuen aldetik errespetua izan dugu, baina beste batzuen aldetik beti entzun behar izan ditugu "hori emakume batek egin badu, seguru ez dela horrela!" eta horrelako gauzak. Baina gero badakite emakumeek erresistentzia eta gaitasuna ditugula gauzak lortzeko garaian, eta hori bakoitzak ikusten du nola baloratu. Nik uste dut detaile asko izan ditugula neskak gauzak egitean, eta horrek ere lagundu digu bidea egitean.

Eskalada asko aldatu dela ere esan duzu. Zertan?

Orain tradizio handiagoko kirola

da, hamarkada bat aurreratu da. Orain askoz kirol profesionalagoa da.

Jasotzen dituzuen laguntzetan ere nabari al da eboluzio hori?

Orain 10 urte, guk ez genekien ezer. Nik Boreal topatu nuen babesle bezala, neuk topatu behar izan nuen, ez nuen beste laguntzarik. Gero markaren batek edo bestek deitu zidan, eta egundoko poza hartu nuen. Espainiako Txapelketa lehen aldiz irabazi nuenean deitu zidaten, eta hori baloratu egin behar da. Orain dena eskura dago, zerbait egiten duzu eta gauza asko lor ditzakezu hortik. Gure garaian bizitza zeuk atera behar zenuen, ez zeneukan materiala-eta erosi eta kito, ez zegoen beste bueltarik.

Zuri zer aldatu zaizu lehen aldiz txapelketa batera aurkeztu zinenetik hona?

Niretzat nire lehenengo Munduko Kopara joatea egundokoa izan zen. Motibazio handia nuen eta oso esperientzia polita izan zen. Dena ematea nahi nuen. Han beste kirolari batzuk nola berritzen zinen ikustea, isolamendura sartzea, besteak nola entrenatuta dauden ikustea, bakoitzak gauzak egiteko dituen erak ikustea... hori dena hartzen nuen kontuan. Ni lehenengo unetik ikasten hasi nintzen.

Eta txapelketa gustatu egin ziztaizun.

Txapelketen mundua ere ezagutu

Azkar-azkar

Haitza. Bizia.

Badiolegi. Jaiotetxea.

Eskalada. Emozioa.

Azpeitia. Haitz-pe.

Harrobia. Lehenengo *bueloa*.

Txapelketak. Txapelaren bila.

Araotz. Bide gogorrenaren lekua.

Soka. Laguna.



Argazkiak

Elkarrietzeta honetako argazkiak Iñaki Uranga azpeitiarrak Leire Agirrerri entrenamenduetan ateratakoak dira. Urangak uztarria.com-en daukan blogean ikusgai daude hauetako argazki batzuk eta hemen ez dauden beste hainbat ere bai ikusi nahi dituenarentzat.

nuen, dena berria zen, dena ezezaguna, eta gu han geunden egundoko motibazioarekin, mundua jan nahian. Ederra da hori. Lehenengo txapelketa haietatik etxera etorri eta gradu erdi bat gehiago eskalatzen nuen. Egundoko indarra ematen zidaten lehiaketek.

Orain arte txapelketaz txapelketa ibili zara, lehian. Bizitzan ere horrelakoa al zara?

Helburuaren arabera jokatzenez duzu, jokatzenez duzun bezala. Nirea ez da eskalada bakarrik, beste mila kontu gustatzen zaizkit: masajearen mundua, terapiena, landareak, medikuntza txinarra... Baina nire oinarria eskalada da eta hor inguruan mugitzen naiz.

Zein izan da zure ibilbideko lorpenik politena?

Dena izan da polita niretzat. Baina profesionalki gehien bete nauen proiektua Naranjokoa izan da. Oinak Izarretan programarako Naranjon grabatu genuen dokumentala izan da nire ibilbide profesionaleko gauzarik politenetako bat. Hamar egunean egin genuen lan han, eta oso polita izan zen guztia; dena ondo irten zelako izango da, igual. Gero, lortu ditudan gauza guztiak izan dira politak. Harkaitzean egin ditudan bide batzuk egin eta behera jaitsitakoan negar egin izan dut, amestutako gauza izan delako. ◀

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

LUBA

· AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
· FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

IRAKASLE TITULUDUNAK ETA ESPERIENTZIADUNAK
CAMBRIDGE, HED, TOEFL
HAURRENTZAT KLASA BEREZIAK EGUARDIAN
ESKOLAKO INGELESERAKO LAGUNTZA
ENPRESETARAKO INGELESA
HELDUENTZAT MAILA GUZTIAK
ERRELEBOETAKO LANGILEEI PREZIO BEREZIA

CENTERPOINT ACADEMY
Ingelesa ikāsteko bide zuzena
Foru Ibilbidea, 7-1 ezk. Tel.: 943 81 65 03

uztarria.com-en aldizkarira ▶

Datua ▶

Uztarria herri aldizkaria atal berri batekin hasi da: www.uztarria.com-i buruzkoa.

Helburuak. Uztarria.com-ek jarraipen handia du (egunero mila lagunek bisitatzen dute eta sei mila orri erakusten dira), baina webek oraindik badituzte mugak (ordenadora izan behar, Interneta, ohitura nabigatzeko) eta uztarria.com-en ezagutza ez da oso-

oso zabala herritar batzuen artean (edadetuen artean...) ... Uztarria aldizkaria jende gehiagok jasotzen du, normala denez, eta aldizkariaren bidez webean egiten den lana erakustea da helburua.

▶ Webeko lanari paperean (ere) balioa eman:

iritziak jarri, argazkiak, bitxikeriak...

▶ Atalak eta parte-hartzea sustatu: blogak, bideoak...

5

URTE WEBAK.

Urtarrilean webak bost urte bete ditu. Sasoiko dago.

Urtarrila

KULTUR
AGENDA ▶

Hilabetea.

Urtarrila.

Banaketa.

Asteburu honetan.

Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.

Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea.

Uztarria Kultur Koordinakundea.

uztarria aurten urola kostako SEKTOREA INDARTZEKO ASMOZ

Abenduaren 16an egin zuen Uztarria Kultur Koordinakundek bazkideen urteko batzarra.

2006 ▶

Balantze ona egin zuten arduradunek eta bazkideek, gauza asko egin zirelako: herri aldizkaria gehiago sendotu zuen Uztarriak eta tirada handitu, webean bideoen atala hasi eta blogari gehiago lortu, beste bi liburu atera, Bai Euskarari Ziurtagiria ekitaldia egin berriro, hitzaldiak antolatu, Kulturaldia antolatu, Kultur Agenda sortu...



Batzarreko une bat.

2007 ▶

Urte hau erabakigarriagoa izan daitekeela esan zuten Uztarriko arduradunek.

Komunikazioa. Uztarriaren ustez, Urola Kostako sektorea "berrantolatzeko"

garaia da, "euskarazko komunikabide enpresa erreferentziala lortzeko denon artean, eguneroko produktu erreferentzialak izateko: egunkaria indartu, webak eta telebista". Uztarriak ondo hartu du Hamaika Taldearen sorrera (EKT, EKHE, CMN, Euskaltel eta Elkar-ek sortua), "eta orain Urola Kostan *Hitza*-ren eta Hamaikaren artean lankidetzara eraginkorraren bila joan behar dugu. Aurten banatuko dituzte Urola Kostan ere telebistak sortzeko lizentziak eta horra begira ahal den batuen eta antolatuen

egon behar dugu sektore-kook". Saio horrekin batera, bitartean uztarria.com gehiago indartzen saiatuko da elkarteak (blogak, bideoak, *Azpeitia* atala...).

Kultura. Arlo horretako 2007ko egitasmoak: Kafe Antzokiaren egitasmoa lantzen segitu, Kulturaldi parte-hartzaileagoa antolatu, Kultur Agendaren zabalakunde handiagoa lortu, karteldegia martxan jarri...

Euskara. Bai Euskarari Ziurtagiria zabaldu, hizkuntz eskubideez plan bat garatu, hitzaldiak antolatu...

Besterik. Batzarrean aho batez onartu zen bazkide-tza kuota 24 eurotik 27ra igotzea. Azken bi urteetan igo gabe zegoen. Uztarriak 2007rako 118.000 euroko aurrekontua dauka. ◀

4

1.052

bazkide gara
dagoeneko
Uztarrin;
eskerrik asko
denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN



Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

HELBIDEA ▶

TELEFONOA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

NAN edo EHNA ▶

HERRIA ▶

E-MAILA ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

▶ Uztarria herri aldizkaria.

▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.

▶ *Euskarazko prentsa* eta *Azpeitia* liburuak.

▶ *Loiolarik ez balitz* liburuak.

▶ *Otsobeltz* liburuak.

▶ *Urrestillako musika taldeak* liburuak.

▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburuak.

▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

▶ Uztarria herri aldizkaria.

Blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/pertsonak

Batido txokolate



Joan dira Azpeitiko bost neska Galarretara, erremonteko partidak ikustera. Sartu dira, eta denak eurei begira. Emakume kuadrila bat Galarretan? Hauek zer egiten dute hemen? Gizon batzuek begirazu txar samarrak ere bai. Hasi da partida, eta norbait animatu behar eta erremontista azpeitiarrari animoak emanek neska hauek. "Benga, moteil! Animo!"

Eta aurreko iladako gizonak burua jiratu eta halako begirazu bat: "Atxo hauek ba al dakibe nun dauden ala?"

Taberna joan eta: "Gin Tonik bat, batido txokolate huts bat, eta beste bat, baylesarekin". Kamare-roak: "Esto... eske ez ditut bi batido txokolate. Eske halakorik ez du hemen inork eskatzen. Tartean behin, etortzen diren umeren batzuek-edo. Eske emakumeak hemen ikusten ohitu gabe gaude". Komuna non dagoen gal-

detu eta: "Emakumeena itxita egongo da. Ez dugu ohiturarik..."

Ni ez nintzen han, baina han izandakoek kontatu zidaten. "Animali raro moduen beitze ziguen!"

Berdintasuna non ote dago... Neskak, gehiago joaten hasi behar dugu. Ze letxes, eros ditzatela batido txokolate gehiago eta ireki ditzatela komunak. Ah, eta hor aurrean begirazu okerrarekin begiratzen duen horri, buila gehiago hurrengoan.

▶ **Estitxu Elduaen**

Beilatokian



Gogorra egiten da beilatokira joatea. Isilik geratzen gara. (...)

Atzokoan lagun baten osaba hil zen (...). Gauza polit bat esatea gustuko dut antzeko egoeretan, eta atzo ez nintzen akordatu, gaurkoan berari zuzenduta doa:

C'est la vie pelikulan, hilzorian dagoen amonari biloba txikiak:

—Amama, zu hildakoan nora joango zera?

—Isildu zaitez —umearen amak, kezkatuik—, horrelakorik ez da galdetzen.

—Utziozu —amonak—. Zatoz nirekin.

Pasieratxo bat ematen zuten bitartean, bilobari:

—Gogoratzen al zara itsasoa ikustera joaten garenean itsasontziei begira nola egoten garen?

—Bai.

—Itsasontziak alde batetik bestera, atzera eta aurrera ibiltzen dira. Batzuk poliki-poliki urrunduz joaten dira eta behin puntu bat pasatzen dutenean, begi bistatik desagertu egiten dira. Baina guk badakigu itsasoan dabilatzala, oraindik han daudela, ezta?

—Bai.

—Ba ni hiltzen naizenean itsasontzi horiei bezalako zerbait gertatuko zait: zuk ez nauzu ikusiko, baina ikusi ez arren, beti hemen izango naiz. Hemen ibiliko naiz. Zure inguruan. Zu zaintzen.

Eta elkarri besarkada handi bat ematen diote.

▶ **Iosu Badiola**

Inkesta ▶

Zeinek irabaziko du Bertso Parranda?

%44,44 Xapio taldeak

%55,56 Mak taldeak

Orain dagoen galdera. Zer duzu nahiago: danborradan parte hartzea edo ikustea?



Argazki blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/argazkiak

Kritika eraikitzailea



Azkenek! Kostatuta baina 'jarri' dut nire erakusketa. Irudi erakusketa edo erakusketa irudikatua... Arazoak egon dira azkeneko urteetan. Izan ere, ez genuen era-

kusketa lekuri Azpeitian baina Udalak aldi baterako Basazabal ireki digu erakusketak jartzeko eta eskertzen da. Botatuko izerdiak eman du bere emaitza, gustura gelditu naiz.

▶ **Iñaki Uranga**

Erregistratu ▶

Nola erregistratu uztarria.com webean? Oso erraza da.

- ▶ Fitxa bete.
- ▶ E-posta eman Uztarriari.
- ▶ Sinadura aukeratu.
- ▶ Pasahitza. Bakoitzak berea izango du.

28 | |

Lehen ▶



Orain ▶



DENBORA GUTXIAN ALDAKETA HANDIA.

Dehora gutxian asko aldatu da Enparan kalea, bai Enparango zubitik beherako inguru hori, behintzat. Urte gutxian, zorua aldatzeaz gain, etxe zaharrak bota eta berriak egin dituzte. Etxe berriak egitearekin batera, ibai ertza garbitu eta pasealekua ere egin dute, eta orain gutxi ireki zuten pasabide hori. Aldaketa handia, beraz. Lehengo itxura gogoratzeko jarri dugu argazki zaharra.

▶ Testua: Ihintza Agirretxe ▶ Argazkiak: Uztarria

Efemerideak ▶ urtarrila



Zelaitxo zinemako sarrera.

urte berria hasteko ORDUA

Urte berria hastearekin batera, herrian gauza asko pasatu izan dira

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

URTARRILAK 3-2002 ▶

Zinema. Zelaitxo zinema aretoa botazuten, etxebizitzak egiteko.

URTARRILAK 5-1652 ▶

Erlojua. Sebastian Lete udaltzaina herriko dorrean bizi zen eta, Azpeitiko ordularia zaintzea bere ardura izan zitekeela-eta, eskaera egin zuen. Agintariek baiezkoa eman zioten, egun horretatik hasiz. Aurrez Martin Concejok jasotzen zuen soldata bera izan-egun zuen.



Udaletxeko erlojua.

URTARRILAK 16-1997 ▶

Zigorra. Karmelo Etxegarai lkas-tolak 79 ikasle zigortu zituen, Jesus Arkauz etakidea Espainia-ko agintarien eskuetan jartzearen aurkako manifestazioan parte hartu zutelakoan.

URTARRILAK 20-1677 ▶

Erlojua. Herriko dorrean zegoen ordularia zaintzeko tratua egin zuten Martin Odriozolarekin, 8 urterako eta bertan bizi zela. Tiroak ere bota beharko zituen bertatik ohiko egunetan. Herriak 20 dukat ordainduko zizkion urtean, eta

beste bi dukat gehiago ordularia-ri olio bota beharko ziolako. Lehen urtean jasoko zituen 20 dukatetatik 10 Martin Concejo-ren alabari eman beharko zizkion, San Miguel egunetik ordura arte hark zaindu baitzuen ordularia.

URTARRILAK 26-1857 ▶

Ardoa. Aurreko urtean, herrian 17.614 arroa ardo eta 1.213 arroa pattar saldu zirela jakinarazi zuten. Inguruko herrietara, berriz, 617 arroatik gora saldu zuten. Herriaren historian oso garrantzi-tsua izan da ardoa. ◀

Pertsonaia ▶

GOENAGAK, KARGUA.

2002ko urtarrilaren 15ean izendatu zuten Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikako sailburuorde Patxi Goenaga azpeitiarra. Postu hori 2005eko uztailaren hasieran utzi zuen eta gaur egun Patxi Baztarrika da Hizkuntz Politikako sailburuordea.



Datua ▶

10

URTE SAIHESBIDEAREN MAKETAK.

1997ko urtarrilaren 24an Azpeitiko Udalak saihesbidearen bi alternatiba jasotzen zituen maketa jarri zuen ikusgai. 10 urte pasatu dira, eta oraindik ere saihesbidearen gaiak hor jarraitzen du herrian. Udala pausoak ematen ari da egiteko.

Argazkia ▶



DONATO ARISTI JAIO ZELA 105 URTE.

Donato Aristi organu-jolea 1902. urteko urtarrilaren 25ean jaio zen. Urte askoan Urrestillako elizako organu-jolea izan zen. Horko organu-jolea izateaz gain, Urrestillako lokutorioko arduraduna ere izan zen. 1990eko abenduaren 7an hil zen, Urrestillan bertan.

Kontua da... ▶

Sendagile langilea



Imanol Elias
Odriozola

Batez ere, 1855eko abuztuaren 3tik urriaren 28ra bitartean Azpeitian ezagutu zen 'kolera morbo' deituriko izurriteak sekulako beldurra, egoera aldaketa eta heriotzak sortu zituen biztanleen artean. Hona hemen datuak: 1.739 gaitzak hartuak, horietatik 747 larri eta 992 arinago. Azkenean, 272 hildako izan ziren.

Gogoan edukitzekoa da izan zirela egunak 16 hildako izan zirenak (irailaren 16 eta 19a); 11 hildakoa (irailaren 27a), eta baita bederatzi eta zortzikoak ere (irailaren 23, 10, 18 eta 24a).

Herriko sendagile Justo Mari Zabala ere gaitzak jo zuen eta haren ordezkariak gobernadoreak Fernando Gimeno bidali zuen irailaren 9an, baina azaroaren 4an Asteasura joan zen, han ere sendagilearen beharra baitzuten. Arriskutik arriskura zebilen agindutakoari erantzunez, eta bera ere gaitzak jota hil zen.

Ondorengo urtean Josefa Recio, Gimenoaren alar-gunak eskaera bat egin zion erreginari: laguntza eskatu zion senarrak eginiko lanaren ordainetan. Gipuzkoako gobernadoreak guztiaren berri jakin nahi izan zuen eta txosten bat osatu zen alargunari ongi oinarritutako erantzuna emateko. Gobernadoreak Azpeitiari Gimeno jaunak egin zuen langintzaren berri adierazteko eskatu zion. Agintariek gaiari buruz erantzun zion: oroitzapen ona utzi zuela biztanleen artean, gaixoei laguntza azkarra eta zuzena eskaintzen ziela, egunez eta gauez, edozein ordutan, kaleko biztanleei bezala baserriko urrutienekoei, aberatsei bezala behartsuei, eta kontutan izan gabe inoiz beraren nekea eta langintzak zuen osasun arriskua.

Ez gara Gimeno doktorea nongoa zen eta non ikasi zuen aztertzen hasi; ez da beharrezkoa gizon jokatu zuela adierazteko.

Garai bateko Azpeitia ▶ Iñaki Etxanizek kontatua

kaletik BASERRIRA

Nahiz eta Enparan Kalean jaio, baserrian asko ikasitakoa da Iñaki Etxaniz; baserria izan da bere "unibertsitatea"

▶ Testua: Ihintza Agirretxe

Inaki Etxanizek 75 urte ditu eta gaur egun erretiratu dago. Lagunekin "mundua konpontzen" aritzen da arratsaldero baina, hala ere, oraindik ez omen dute dena konpondu.

Enparan kalean jaio zen Etxaniz eta oso gazte hasi zen lanean; baserrian morroi, hain zuzen ere. "Ogia izateko derrigorra zen garai hartan lan egitea", azaltzen du Etxanizek. 12 urterekin hasi zen lanean eta 15 urtera arte han aritu zen baserrian. "Ni baserrian gizondu nintzen; hura izan zen nire unibertsitatea, nik han ikasi nuelako ikasi beharrezkoa", azaltzen du.

▶ **MEZARA.** Asko ikasi zuen Etxanizek baserrian. Argirik gabe nola ikusi, esate baterako. "Orduan goizeko seiretarako mezara meza nagusira baino jende gehiago joaten zen, eta gu ere baserri-tik hor jaisten ginen goizean goiz. Ordubeteko bidea genuen eta orduan ez zen argirik. Bidea ikusteko, garia moztu, eskuka bat

👉 Ni baserrian gizondu nintzen; hura izan zen nire unibertsitatea, nik han ikasi nuen ikasi beharrezkoa"

IÑAKI ETXANIZ ▶ erretiratua



Iñaki Etxaniz Enparan kalean jaio zen orain dela 75 urte.

hartu eta su ematen genion. Gero alde batera eta bestera mugitzen genuen, eta horrela suarekin ikusten genuen bidea".

Mezatik irten eta gero, izaten zuten hamaiketako egiteko betarik. "Mezatik irten eta Galtxarenera joaten ginen. Han helduei anis kopa bat ematen zieten lehenengo, gailleta mariekin, eta umeei, berriz, gailletak baino ez. Ni han egoten nintzen inbidiaz, anisa nahi izaten nuelako neuk ere. Baina gazteegiak ginen gu alkohola edatekoa", dio, erdi barrez.

25 urterekin soldadutzara joan zen, Donostiara. "Orduan ez zegoen gerrarik eta hantxe pasatu nituen hamabost hilabete. Cabo instructor izan nintzen han".

Handik bueltan bere enpresa jarri zuen, bere kale Enparaneko andregaiak topatu zuen eta 27 urterekin ezkondu egin zen. "Lehen formal banintzen, orduan gehiago formaldu nintzen. Orduantxe utzi nituen festa guztiak alde batera. Eta alaba bat izan nuen", dio. ◀



Hitz geizidunak ►

	Zutabea ▼	Adarrak moztu ▼	Olibondo-aren fruitua ▼	Oparota-sun ▼	Amaierak
	DEITURA	Baiezta-tzeko	Musika nota	Emakume izena	
	Neurriak				
	Bibal				
Baloi ttikiak ▼	Gauza		Nafarroako herria		
IZENA	Hizkuntza mota		Gizon izena		
		Istua, txistua		Zibaren erdian	
		Ipar EH-n, esna		Irten, jalgi	
Nafarroako herria				Sarrera	
Higuin				Sufrea	
			Asto ar		
			Gizon izena		
Tantaloa		Pe		Nafarroako urtegia	
Jaurti-gaia	A birritan			Kontso-nantea	
		Otx!		Karta joko	
		500		Bokala	
Margolana				Non atzizkia	●

* Azpeitiar plater tiratzailea

Hitz gurutzatua ►


EZKER ESKUIN. 1. Denbora, aukera. Larru. 2. Arnas ezak hil. Ospea, izen ona. 3. Bat gehi bat. Edozein irin egoegiten den jateko ore. 4. Amaiera. Uranioaren ikurra. 5. Jardun. Gipuzkoako herria, Urola Kostan. 6. Kontsonantea. 7. Amerikako animalia, katuaren familiakoa. 8. Zilarraren ikurra. Euskal sindikatua. Lehenengo eta azkenekoa. 9. Estatu Batuetako estatua. Nahastura trinko. 9. Ez emea. Hasi!

GOITIK BEHERA. 1. Gora! Pisua. 2. Filosofiaren adarra. Su. 3. Harrapa ezak! Garai, aldi. Iridioaren ikurra. 4. Bokala. Deitura. 5. Lo egiteko altzari. Hitz, solas, berba. 6. Itsas armadako ofiziala. Bokala. 7. Herri hizkeran, zer. Herri hizkeran, adio. ... egin, goitik ari. 8. Emakume izena. Ate inguru, ataurre. 9. Aintzira. Bizkaieraz, zeren.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZZARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA



zer kirol egiten dute?




Erremontea



Joxe Manuel Gurrutxaga

Joxe Manuel Gurrutxaga Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 79. irabazlea. **Nerea** dendako txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Gurrutxaga –eskubian– eta Rosario Ibaeta Nereaneko dendaria.

Zer da hau? ▶



ERANTZUTEKO EPEA ▶

Urtarrilak 22 (astelehena)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

ZER DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Garai ileapaindegiko zerbitzu bat

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrrian bazkide izan behar da

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3
Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

ORDULARI

José Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

arte eta diseinu ikastegia

arte

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 619 586 652
matrikula urte guztian zabalik

Zaindu ▶ Oilo-arrautza

Julian
Bereziartua



Oiloaren arrautza da beharba-
da elikagairik maiteena,
osoena eta erabiliena mendebal-
deko mundu honetan; are eta
gehiago patata-tortila Nafarroako
erriberan sortu zela esan zenetik.

Uretan pasatutakotik *souffle*-
raino, beste mila era aurki daitez-
ke. Ez dut ezagutzen arrautza friji-
tua gustatzen ez zaionik.

Nahiz eta zientzilari batzuk ma-
darikazioak bota kolesterola edo
hegazti-gripena aipatuz, elikagai
honek, zorionez, hor jarraituko du
elikagaien sailkapenaren buruan.

Bere bi etsai gogorrenak, sal-
monela eta gorringoak dituen
koipe aseak dira. Hegazti ustia-
penetan jakina da: arrautza gordin-
nik janez gero, hesteetako behe-
rakoa sor dezake. Gorringoak di-
tuen koipe saturatuak kaltega-
rriak dira eta, epe luzera, iskemia
edo organoetako odol-zirkulazioa
oztopa dezake. Horregatik, suka-
deko arrautzaren erabileran hi-
giene baldintzak zorroztasunez
bete behar ditugu.

Elikagai bezala haragiaren edo
arrainaren ordeko garrantzitsua
da; bi arrautza eta erdiren balioa
elikagarria 100 gramoko txahal
edo legatz xerra batena da.

Azukrerik edo uriko azidorik ez
du. Proteina gehienak zuringoan
ditu baina koagulatuta jandakoan
bakarrik da aprobetxagarria edo
baliagarria, nahiz eta lehen gordin-
nik jateko ohitura izan.

MIKEL SALEGI ▶ Lagun Onak-eko nesken entrenatzailea

Kirol bat?

Futbola.

Eta futbola ez bada?

Pilota.

**Entrenatzea edo
jokatzea zer duzu
nahiago?**

Entrenatzea.

**Neskak edo mutilak,
zein entrenatzea
nahiago?**

Orain arte neskak
entrenatu ditut eta,
oraingoz, neskak
nahiago.

Futbol jokalaria bat?

Oliver Kahn atezaina.

Selekzio bat?

Euskal Herrikoa.

Futbol zelai bat?

Camp Nou.

Entrenatzaile bat?

Miguel Angel Lotina.

Ametz bat?

Belar artifizialean astean
pare bat aldiz entrenatzea
eta nesken futbolak
dagokiona jasotzea.



▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe

Abizena ▶ Mendiola

Armarria.

Armarria lau zati-
tan eginda dago.
Goiko ezkerreko
eta beheko esku-
biko zatietan zilarrezko arrano-
ak ageri dira. Beste bi zatietan,
berriz, otsoak.



Banaketa semantikoa.

▶ 'Mendi' eta 'ola' hitzek osa-
tzen dute abizena.

Esanahia.

Mendiko ola esan nahi du abi-
zenak.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Eskoriatza.
- ▶ Leintz-Gatzaga.
- ▶ Eibar.
- ▶ Soraluze.
- ▶ Ordizia.
- ▶ Aretxabaleta.
- ▶ Elgeta.
- ▶ Gernika.
- ▶ Antzuola.
- ▶ Habana (Kuba).

Abizenaren hedapena.

- ▶ Arrasate (1902 eta 1634).
- ▶ Soraluze (1634).
- ▶ Oñati (1666).
- ▶ Tolosa (1759).
- ▶ Antzuola (1771 eta 1782).

Esandakoa ▶

“Justu, jokalariaik
agurtzen nengoen une
horretantxe konturatu
nintzen benetan
banindoala”

LOLO ENCINAS ▶

Iraurgi SBko entrenatzaile ohia

“Oso urte txarra
izan dut, okerrera
profesionalen.
Lehendabizikoan
hobeto aritu nintzen”

ANDONI ARANAGA ▶

txirrindularia

Zenbat ▶

6

ANTXUME.

Urrestillako Altuna erdiko
baserrian sei antxume izan
zituena ahuntz batek bat-batean.
Ohikoena bi antxume izatea da.

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

Gertuko pasadizoa ▶

jotakieren AZKEN HATSA

‘Jotakie. Urolan pop’ liburutik
hartua ▶ Argitaratzailea: Paper
hotsak ▶ 2006 ▶ Egilea: Xabi Borda



penarekin jarraitu zuten, deitzen zietenean kontzertuak emanez. Haatik, taldea ez zegoen osasuntsu. Kideek nabaritzen zuten Jotakieren azken taupadak zirela. Jotakie hiltzeaz zegoen piztia zela esan dio Lukak umeari; laster lurrera eroriko zen animalia eritua.

Nahiz eta umeak izaten jarraitu nahi, noizbait hezurak handitu egingo zaizkio. Bizarra haziko. Noizbait, gurasoen babesetik irten, eta bere kasa bizi beharko du. Alferrik saiatuko da inor bizitzaren legeari muzin egiten. Denboraren norantza bakarra da.

Taldekideak 30 urteren bueltan zebiltzan 1990. hamarkada haseran, eta ordura arte dedikazio osoa eskainitako musikak itxurazko bizimodurik ez zekarkiela ikusten hasi ziren. Eurak ere noizbait gurasoen babes ekonomikotik irten beharko zuten, eta etorkizunarekin pentsatzen hasi.

Lukak musika ogibidea bihurtu nahi izan zuen hasieratik. Ez zuen tailerreko lana maite. Jotakie lan duina zen Lukarentzat: diruz gaizki ordaindurikoa, baina gustukoa. Lau disko herri herriko emanaldiak, atzerrira irteerak... taldeak bere arrakasta txikiak lortu zituen. Baina, 30 urte zuten, eta oraindik musikatik bizitza aurrera ateratzeko modurik ez. Ezin esan ahalgin faltaren errua zenik. ◀

KAPITULUA ▶ Agur Maolo (139. orrialdea).

“Beharbada, lehenago esan banie hobe izango zen”.

Maolok taldearengan fedea galdu zuen. Bere burua eta taldea engainatzen zebilela uste zuen. Zikloa amaitu zela. Taldearen azken urteetako ibilbideak ez zuen asetzen; perfektoegia zen bere amorantea. Mozteko momentua iritsi zitzaion Maolori.

Ez zion, ordea, taldeari kalterik egin nahi. Diskoa grabatzera sartu behar zuen Jotakiek, eta bere irteera onerako baino kalterako izango zela uste zuen. Ez zen maitalea abandonatzeko momentua, pixka bat itxoin beharra zegoen.

Estudiora sartu aurretik, ez zuen taldea hautsita ikusi nahi.

Baina gaur esan behar denean, agur esan behar da. Diskoa kalean ikusita, ez zuen indarririk aurrera jarraitzeko. Ez zuen indarririk promoziorako. Kontzertuetarako. Nabarmenegia zen desilusia.

Agur guztiak izaten dira garratzak. Hamar urteko harremana eteteak min eman behar du. Baina, korapiloak askatu egin behar dira. Agur esan behar denean, agur esan behar da.

Agian berandu, baina agur esan zuen Maolok.

▶ **AGUR JOTAKIE.** Boskotea berriro laukote bihurtuta, *Joxemai Beltza* diskoaren aurkez-

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Clamendi
Betsi Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

PILDAIN
Inmobiliaria
www.pildain.com
Harzubia 6, behea
Tl. 9438 12167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

INFORMATIKA ZERBITZUAK



ORDENAGAILUEN KONPONKETA ETA SALMENTA

- PORTATILAK
- OSAGARRIAK
- BIDEO ZAINTEA
- WIFI SAREAK
- KOMERTZIOTARAKO TPV-AK
- TABERNENTZAKO MUSIKA SISTEMAK...



JANDONIANIZ PLAZA 5 AZKOITIA Tel.:943026428 Fax.:943026329
email:etk@etkinformatika.com

www.etkinformatika.com

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaia)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)	Uztarria Kultur Koor.	15 03 58
EA	81 00 11	Kontseilua	943 59 12 00
PSE-EE	15 72 00		
PP	15 72 00		

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08

IKASTETXEA

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauez ▶ urtarrila

8-13-14-25

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

9-26

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

10-22-28-27

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

11-23

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

12-24

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

1-5-18-30-31

Azpiazu (Azkoitia).
943 85 29 89

2-3-15-20-21

Ruiz (Azkoitia).
943 85 19 66



TAXIAK URTE OSOAN, ORDU GUZTIETAN.

Jose Artetxe kalean izaten dira taxiak (Juantxo Txiki aurrean). Egun osoan, egunez zein gauez, beti egoten da norbait guardia egiten. Guardian dagoen taxia zein den Udaltzaingoa jakiten dute. Taxi postuko telefono zenbakiak: 943 81 13 07.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

EUSKARA



- Itzulpenak.

- Euskara planak:

- Bai Euskarari Akordioa herrietan garatzeko eta zabaltzeko zerbitzua.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) herrietan gauatzeko laguntza eta aholkularitza teknikoak.

KOMUNIKAZIOA

- Irudi korporatiboa osoa lantzen dugu:

- anagrama eta logotipoak.
- katalogoak, diptikoak, kartelak, aldizkariak...
- papertegia: orriak, gutun azalak, txartelak...
- seinaletika: errotuluak, panelak...



ERE GI

EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA



*zure zerbitzura
gaituzu!*

goiko kale 5, 3A
tel.: 943 08 06 88
20730 azpeitia (gipuzkoa)
e-posta: eregi@eregi.net

Urola Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea

Azpeitia Tel: 943 812666

Ziklomotor lizentzia eta
gidabailmen guztiak



Ondo pasau
San sebastianak

euskarak
behar gaitu!

æk
heldu

izan zaitez
korrika
laguntzailea


12 euroren
truke

www.korrika.org

JOSU ZUBIZARRETA ▶ soinu teknikaria

“Lan honetan musikoa izateak bere garrantzia din”

▶ Testuak eta argazkiak: Ainitze Oruesagasti



TXIKITAKO AMETSA.

Josu Zubizarretak beti garbi izan du zertatik bizi nahi zuen handitzen zenean: “Nik beti garbi izan dinat zer izan nahi nuen; uste dinat hori izan dela garbien izan dudana gauza”, dio. “Ume-umetatik musikatik bizi nahi izan dinat”. Eta bere ametsa lortzen ari da.

Josu Zubizarreta umetan hasi zen gitarra jotzen. Ordutik, hamaika musika taldetan aritu da, eta 40 talde baino gehiagoren maketak grabatu ditu. Umetatik musikatik bizi nahi zuela garbi izan du, eta horretan ari da. Hainbat talderekin zuzenekoetan ibiltzeaz gain, urte berriarekin batera Landetan grabazio estudioa irekiko du.

Zer lan dauka maketa baten grabazioak?

Lan konplexua dun, taldeko instrumentuak banaka grabatu behar direlako. Lan honek ez din esperientzia bakarrik eskatzen; musikoa baldin bahaiz, hobe, askoz. Taldeak alderdiren baten hutseneren bat badu, hik esan behar din non hutsegiten duen. Produktu hori hobetu egin behar dun. Lan honetan musikoa izateak bere garrantzia din.

Denbora asko eskatzen al du?

Bai, ordu asko. Oso lan lotua dun. Honetan aritzeko gustatu egin behar zain, bestela jai daukan.

Joera ezberdineko taldeen maketak grabatu dituk.

Estilo asko izan ditun, bai: Arima Beltza, Legen Beltza, Karelean... Ez ditun norberaren gustuak bakarrik kontuan izan behar, horietatik irten egin behar dun eta estilo denetan nondik nora joan ere jakin egin behar dun.

Nolatan hasi hintzen?

Grabazio mundua ez niran eza gutzen, musiko gisa bakarrik. [Aitor Bereziartua] *Atxuiya* lan horretan ikustea eta lanetan aldamenen egotea, soinu teknikari ikasteko arrazoietakoa bat izan zunan. Ikasketak bukatu eta urtebetera grabatzen hasi nindunan.

Orain estudioa irekiko duk.

Talde asko etortzen ditun kanpotik eta aldea egiten din; herrikoekin bakarrik ez zagon ezer. Lokala irekitzea erronka dun, Euskal Herrian estudio asko daudelako. ◀



Martin Alegria eta Jexux Arrizabalaga, Uztarran.

itzaleko MAISUAK

Martin Alegria eta Jexux Arrizabalaga, biak izan dira, besteak beste, euskara irakasle Donostian. Bigarrenak horretan dihardu oraindik

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkia: Ihintza Agirretxe

Begi-bistakoa da Azpeitia herri euskalduna dela, baina ageriko paisaiaren azpian, errealitate anitza ezkutzen da. Izan ere, euskararen erabilera ez da bera herritar guztien artean eta, ondorioz, euskara errotzeko lanean aritu denik ere bada gurean. Esaterako, Jexux Arrizabalaga eta Martin Alegria. Adibidez, biek irakasle lanak egin dituzte Donostian.

Gaur egun Donostian bizi bada ere, Arrizabalagak Azpeitiarekin harreman estua izaten jarraitzen du. Gipuzkoako hiriburuko Amara auzoan Urrats euskaltegiko irakaslea da, baina lehenagoak dira Arrizabalagak euskalgintzan emandako lehendabiziko urratsak. "1970 aldera hasi nintzen euskara irakasten herriko etxeetan, Koldo Mitxelenaren *Euskalduntzen* metodologia erabilita", dio Arrizabalagak. Urte haietan, bigarren korrante migratzailea bizi zuen Euskal Herriak eta, beste hainbat beharren artean, tala linguistikoa geratu zen agerian. "Enpresetan langileak batzordeetan eta antolatzen hasi ziren eta antolakuntza horretan sartzen zen etorkinak euskalduntzea; horren barruan kokatu behar dira hasiera haiek".

Irakasle azpeitiarrak adierazita koaren arabera, garai hartan, klaseak emateaz gain, familiako okindegiko ogiak baserrietara eramateko abagunea aprobetxatzen zuen *Zeruko Argia* aldizkari-rako harpidetzak egiteko. Argitalpen horri atxikitako oroitzapen gehiago ere baditu Arrizabalagak; izan ere, 18 urterekin, Azpeitian Oargiko presidente zela, *Euskaltzaleak* izeneko taldea sortu zuen aldizkari hartan artikulak idazteko.

Martin Alegria, berriz, azkenean urteetan eskutitz eta sobre artean ibili bada ere postari lanean, hark euskararen inguruko

Bota lasai ▶ (www.uztarria.com/euskara)

Garai...pena

 Garai gizonezkoen ileapaindegia izango da Azpeitian ireki duten azken denda igual. Errotulazioa euskaraz jarri du. Gaur egun herrian euskaraz jarri ohi dute errotulazioa-eta. Euskararen garaipena da hori. Segi horrelaxe.

▶ Anam

Ertzaintza

 Urola Kostako Hitza-n Euska-
l Herrian Euskarazeko (EHE) kide batek idatzitako iritzi artikulua irakurri dut. Idatzian dioenez Osakidetzako oposizioetan euskaraz lanpos-
tuen %20 bakarrik eskainiko dire-
la-eta, elkarretaratzea deitu zuen
EHEk abenduaren 13rako. Deial-
dia egiteko EHEko bi kide kartelak
ipintzen ari zirela, ertzainek identi-
fikatu egin omen zituzten, elkarreta-
ratzea egiteko baimenik ez zutela-
eta. Benetan larria iruditzen zait
ertzainen jokaera, besterik ez ge-
nuen behar! Horren aurrean, zer

ote diote Ertzaintza maneiatzen
duten alderdiko kideek?

▶ haritzetxaniz

Bihar, etzi...

 Bihar, abenduak 3, Euskara-
ren Eguna da. Etzi ere bai,
etzidamu... Aldarrikapen eta
ospakizunetatik haratago
joan beharra dago, aldarrikatzen
dut, ospatu ahal izateko inoiz.

▶ Enekoitz Esnaola

‘Propaganda del ayuntamiento’

 Gaur eguerdian, bazkalon-
doan, siestan nengoela be-
heko txirrinak jo du. Jaiki naiz
eta “zein da?” galdetu dut,
eta berak erantzun: “*Propaganda
del ayuntamiento*”. Erdi lotan
nengoen eta ez diot ezer eran-
tzun, baina ezta aterik ireki ere.
Nola liteke Azpeitian aurkeztu
dizkiguten normalizazio plan zo-
ragarri horiek izan eta gero,
Udalaren propaganda banatzen

dutenek ere euskaraz ez jakitea?
EBPNren bazkalondoko siesta
ez al da luzetxoa?

▶ Haritz Etxaniz

Nabarmena beharko lukeena, oharretan

 Anbulatoria joan naiz eta
sarrerako iladan zain egon
ondoren iritsi naiz azkenik
harrerako mahaira. Han
ikusi dut mahai gainean ohar bat.
“Hemen euskaraz badakigu”, edo
horrelako zerbait jartzen du (ez
naiz hitzez hitz zer jartzen duen
akordatzen). Hori gogoratu beha-
rra al dago? Zergatik ez dute jar-
tzen gaztelaraz badakitela?

▶ Maite

Azpeitiko Correosen erdaraz

 Erdaraz funtzionatzen du
Correosek. Lehengoan pa-
kete bat bidaltzeko joan nin-
tzen Azpeitiko egoitzara eta
faktura dena erdaraz egin zidate-
la konturatu nintzen gero. Hori da

sistema honek eragiten digun
faktura.

▶ Anam

Azkoitian Bai Euskarari Ziurtagiria

 Azkoitian bertako ia 30 era-
gilek Bai Euskarari Ziurtagi-
ria jaso berri dute. Kontsei-
lua, Udala eta herriko eus-
kalgintzako kideak elkarrekin ari
dira lanean euskararen normali-
zazioan. Bejondeizuela!

▶ Uztarria

Iritzi horren erantzuna

Eta alkateak...

Eta Asier Aranbarri alkateak
hau esan zuen: “Bai Euskarari
Ziurtagiria euskararen normali-
zazioaren mesederako dela iru-
ditzen zaigu eta aurretik erama-
ten ari ginen lan ildoan txerta-
tzea erabaki dugu”. Ai handikal-
dean bai eta hemen...

▶ Iñaki Odriozola

hainbat ekimenetan jardun izan
du. Beraz, postaria lanbidez eta
euskaltzalea bokazioz. Alegriak
gogoan ditu gaztea zela Nuarben
euskararen inguruan izandako
lehen bizipenak. Inaxio Mari Olar-
te, Ambrosio Goenaga eta Fran-
tsesa-ren inguruan gogoratzen
ditu garai haiek, etxeko sukaldea-
ren goxoan erditutako ideiei
forma emanez.

▶ TREBATZEKO KLEASEAK.

“Zentenarioko eraikinean hasi
ginen euskaraz trebatzen, Olarte-
rekin lehendabizi eta Beasaindik
etortzen zen Jonekin gero”, dio
Alegriak. Ondoren, Nuarben eta
Betharramdarretan hasi zen es-
kolak ematen. Gramatika gehiegi
menderatu ez eta Xabier Kintana-
ren *Euskara, hire laguna!* meto-
dologia zuela bidelagun aitortzen
du. Ez ziren garai errazak; “hamar

“Eguneroko

bizitzan euskara
erabiltzea da
garrantzitsuena, eta hori
Azpeitian gertatzen da”

JEXUX ARRIZABALAGA ▶
euskara irakaslea

“Hamar ordu lan
egin ondoren, abarkak
jantzi, afari pasada egin
eta bizikletan joaten
ginen klasera”

MARTIN ALEGRIA ▶
euskara irakasle ohia

ordu lan egin ondoren, abarkak
jantzi, afari pasada egin eta bizi-
kletan joaten ginen klasera”. “Ma-
kina bat ilargi hartu genuen guk,
alajaina!” esanda laburbiltzen
ditu orduko pasadizoak.

Gertaera bitxiak ere baditu
kontatzeko Alegriak, behin Do-
nostian Gros auzoko ile-apainde-
gi batera joan eta euskara irakas-
teko eskatu ziotelako. Bestalde,
Nuarbeko festetako egitaraua
idazteko orduan ere tirabirak
izana da, auzotar elebakarren
ahotik “euskara ez dik inork uler-
tzen, euskararekin ez hoa inora!”
sarritan entzun behar izan bai-
tzuen. Gaur egungo egoera so-
ziolinguistikoa “bestelakoa” dela
uste du Alegriak.

▶ AZPEITIKO HIZKERA. Az-
peitian hitz egiten den euskara-
ren inguruan ere mintzatu da

Jexux Arrizabalaga. “Jendarte ur-
banoko herri moderno eta handia
izanik Azpeitia, erabat euskaldu-
na dela da garrantzitsuena, eta
hori asko baloratzen du euskal-
tzalea denak”. Azpeitiko euskara
batzutan zakarra eta lotsagabea
izan daitekeela ere onartzen du
baina, bere ustez, “hori ez da ga-
rrantzitsua, eguneroko bizitzan
euskara erabiltzea da inportante-
na, eta hori, azken batean, Az-
peitian gertatzen da”.

Gaur egun Donostian dihardu
irakaskuntzan Arrizabalagak.
Pedro Miguel Etxenike fisikaria
eta Floren Aoiz idazlea eta politi-
kari ohia ikasle izanak ditu, eta
beste politikari ezagun ugari ere
pasatu da euskaltegitik. Politika-
riek hizkuntzarekiko azaldutako
jarrera ez du orokorrean atsegin,
“ardura gutxi eta formaltasun es-
kasa dutelako euskararekiko”. ◀

Euskararen gorabeherak ▶




GORA. Euskarak pintatzen du

Barandak margotu zituzten plaza ondoko atari batean eta goiko oharra jarri zuten. Euskaraz egonagatik, inor ez zen zikinduko...



BEHERA. Euskara ere saldu du

Behekoa bezalako oharrak ikus daitezke oraindik herriko kaleetan: gazteleraz. Egileak, etxea saltzeaz gain, euskara ere saldu du. Eta euskara ere behar du.



Euskararen eskubideen urraketak salatze / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Eskubidea dugu informazioa euskaraz jasotzeko”

Euskal Herrian Euskarazen 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrian dago edonoren eskura

Albisteak ▶

Gure Irratiak laguntza behar; han dabil Aizpuru kazetaria

Orain dela aste batzuk Ipar Euskal Herriko Gure Irratiaren egoitza hondatuta geratu zen sutearen ondorioz. Hori dela eta, elkartasun kanpaina abiatu dute.

Joxe Luis Aizpuru azpeitiar kazetariak badu loturarik irratia harekin, Iparraldeko lau euskal irratia (Gure Irratia bera, Xiberoko Botza, Irulegi Irratia eta Antxeta Irratia) biltzen dituen Euskal Irratiak Federazioan egiten duelako lan 2002tik.

Gure Irratia orain dela urtebete ere laguntza beharrean izan zen. Uztarriak, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa zela-eta antolatuzuen porran bildutako diruaren %30 Gure Irratiari bideratu zion.

LAGUNTZA BIDERATZEKO ▶

Kontu korronteko zenbakia. 3035 00 5987 0590 05 2623 Euskadiko Kutxa.

E-posta. gureirratiaelkartasuna@euskalirratia.info

Telefono zenbakia. 0033 616 23 334

Korrikaz ▶

Azpeitian bai? Aurten ere pasatuko da Korrika Azpeititik.
Noiz? Martxoaren 25ean. Igandea da.
Ordua? Oso goiz: 03:35ean.

Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Industrialdea z/g
Tel. 943151182



Ez al zenuen zerbait
ezberdina nahi,
berezia?




gaur eguneko diseinuak
egur trinkoan

www.lasao.com



ondo pasatu sansebastianak



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50



**UDAZKENA
NEGUA**

marka berriak
modako markak
konplementoak

brain
prezio
onenak

59,95€

Babesa

39,95€

Xahimandei ausuen sartxandek! • Urbitarte, 9 AZPEITIA • H: 943 15 13 69